

TOKIKOM

2011ko urria | 108. zenbakia

aita!r!

txerriko karia

Altzora ekarri dabe
euskerea Sondikan

TXIRRI MIRRI ETA TXIRIBITON JUNIOR ZAMUDIOKO JAI AK ELTZEGINTZA ELKARTEA

Eraiki zubia HERRIARI



www.amaiur.info

amaiur



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili, Tximintx eta Altxora)
Tel.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Bestorrene, Maite Lekerika, Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Jon Goikouria Larrabeiti, Pospolin, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Susana Rodríguez, Udane Goikoetxea, Itsasne Zubiri, Sabin Arana, Bestorrene, Zamudioren, Oihana Astobieta, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



diruz lagundutako aldizkaria



12 Txirri, Mirri eta Txiribiton junior



22 Zamudioko San Martin jaiak



30 Eltzegintza elkarte

- 4 Eritxia
- 5 Gutunak
- 6 Laburrak eta albisteak
- 11 Iruditan...
- 12 Gurean izan da... Txirri, Mirri eta Txiribiton junior
- 14 Gaztea eta... Nekane Sustatxa
- 16 Publierreportajea
- 18 Altxora Sondikako euskara elkarte
- 22 Zamudioko San Martin jaiak
- 26 Asier Saenz, sukaldari estres
- 28 Kirolaren kultura
- 30 Elkartek... Eltzegintza
- 32 Txorierri ezagutu... Sarria-Etxebarri edo Pikene
- 34 Aikorrizketan... Zertarako da ingelesa?
- 36 Sukaldaritza
- 37 Denborapasa
- 38 Agenda

bidera aholkularitza

www.bidera.eu/aholkularitza

• KONTABILITATEA • ZERGAK • LAN ARLOA • KOBRANTZEN KUDEAKETA •

943-30 40 30
aholkularitza@bidera.eu



SUSANA RODRIGUEZ
(Abokatua)

Hilabete baino gehiago da hedabideak kanpaina egiten hasi zirela emakumeek pairatzen duten indarkeriaren aurkako nazioarteko egunaren kontura. Aurreratu dira. Dakigunez, Estatuko hauteskundeak laster izango dira eta batzuen ustez edozerk balio du botoak eskuratzeko, egiantz eskaseko publizitate-iragarkien bitartez bada ere. Horren haritik, "herritarrek sentiberatzeko kanpainak" konponbide sinesgarria eskaini beharko liokete kanpainon iturburu

Emakumeok, eredu izan gaitezen!

den indarkeriaren arazoari eta, nire iritziz, aldian-aldian zabaldu beharko lirateke hedabideetan arazoak indarrean badirau. Guztiaz ere, emakumeek jasaten dituzten tratu txarrak salatzeke eguna azaroaren 25a aukeratu zuten, baina emakume bakar batek ere tratu txarrik nozituz gero, egunero izan beharko litzateke azaroaren 25a. Argi dago, agintariek horren argi ikusten ez duten arren edo ikusi nahi ez duten arren. Besaulki erosoetan patxadaz jesarrita daudela, ez dute zetazko benda begietatik kendu nahi. Legeak ematen dituzte epaiketen praxia hobetzeko, ministerio eta sail berezi edo berariazkoak sortzen dituzte gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak neurtzeko, eta behatokiak asmatzen dituzte etxeko indarkeriazko egintzak zelatatzeke helburuarekin. Eta behatoki horiek emandako datuak baliatzen dituzte emakumeak babesteko agindu, urruntze-neurri eta tratu txarren eragi-

leak askatasunaz gabetzeko epaien eragin-kortasuna jendaurrean zuritzeke. Anabasa horren erdian, orde, gizonezkoek andrakumeak hiltzen segitzen dute, indarkeria izugarri areagotu da 15 eta 20 urte bitarteko neska-mutilen artean eta hainbestetan aipatutako krisiak bihotz barik jokatzen du andrazkoen aurka.

Bada sasoia guk guztiok emakumeen erailketen erantzukizuna geure gain hartzeko. Legeak eta epaiketak ez dira inoiz guztiz eragingarriak izango gizartea errotik aldatzen ez bada. Zor zaigun duintasuna aldarrikatu behar dugu emakumeok eta gizonezkoek dauzkaten eskubide berberak erdiesteko senperrenak egin behar ditugu, indarrak batu eta etxetik bertatik hasi behar dugu, eskolatik, kaletik, aisialdiko guneetatik, kirolek, kulturatik... eta sexu bereizkeria itzaltzeko tokiak sortu behar ditugu. Eredu izan gaitezen eta gizon asko edukiko ditugu alboan. Ez izan dudarik.

Urte gitxi dira gure herrian auzolana berez-berez, ohitura moduan, egiten zala. Pentsatzen hasi ezkerro, ez hainbeste. Amamak eta aitatik sarri kontau izan deuskue baserrian gauza asko egiten zala era horretara. Esate baterako, txarria hil edo garia ebagi. Hartaragino-eta, txiki denporan umeak eurak be lapikoa jagoten be ipinten zituen.

Orain gauza jakinak baino ez ditugu egiten auzolanean. Izatez, sano polita litzateke auzolana egiteari jarraitzea, baina errealdadeak dinosku batzutan ondoan nor bizi dan be ez dakigula. Nafarroan oster, zuhurrago dabilz. Adibiderako, xelebrea Lesakan aurrera eroan

Auzolana



UDANE GOIKOETXEA
(Kazetaria)

dabena. Auzolanean garbitu ditue Onin errekea eta Erdiko Errotako Kanala. Hamaitetakoa be eskaini deusie Udalak.

Dakigunez, urriaren hamabia ez zan jai eguna izan Herriko Etxean. Udal bulegoak ohiko ordutegietan egon ziran zabalik. Gainera, Udalak egindako deiari erantzunez, honenbeste herritar auzolanean jarduteko alkartu ziran.

Bestalde, urriaren hamabiko Pilarika egunean ez eze, abenduaren seiko Konsitutuzino egunean be antzeko zer edo zer egitea da Herriko Etxearen asmoa, euskaldunoi inposatutako jai egunak direla-eta.

Gure arbasoek legeaz gaurko euskaldunok be badakigu, politikan nahiz sokatiran auzolana beharko dugula.


BARATEGIA
J. ELORRIAGA
Etxeke berezitasuna: bertoko okela
Iturrikoetxe, 7
Tfn: 94 455 89 41
LARRABETZU


Pelukeria
Esterika
94 455 81 44
Angulen 2. beheko Larrabetzu-Bizkaia


Miguel Angel Lekue, garraiolaria
Larrabetzu
656 786 744 94 455 80 20

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@aikor.com.

“Supersurra”, Txorierriri eraso berria

Foru Aldundiak irailean Mugikortasunaren Astea ospatu arren, hilabete berean inauguratu zuen Metropolitiko Hego Saihesbidea, Supersurra. Europa osoan gehien kostatu den errepidea, ziur asko, kilometroak 50 milioi baino gehiago, eta ingurumenean eragin bortitzena duena, beharbada. Hamazazpi kilometroko tartea tunel edo biaduktuetatik doa osorik, Ezkerraldean gelditzen diren balio naturaleko esparru urriak kaltetuz.

Bizkaiko Errepideen Lurralde Plan Sektorialaren onarpena zela-eta, 1999an Foru Aldundiak lehen aldiz aitortu zuen Bizkaia oso gertu zegoela bere muga fisiko eta finantzierotik. Horrekin hau esan nahi zuen: aurrerantzean, trafikoari erantzuteko, ezin zela etengabeko errepide gehiagorik eskaini, ibilgailuak ez erabilitzeko neurriak hartu baizik.

Halako hausnarketa zuzenak arriskuan jartzen zuen Obra Publiko handien pagotxa, eta alarma piztu zen eraikitzaile eta bankuen artean. Baina orduko Ahal-dun Nagusia, Josu Bergara, berehala agertu zen animoak lasaitzera: A-8aren hegoaldean superautopista berri bat eraiki behar omen zen. Orduz geroztik ikerketa tekniko moztururiko gezur



ofizialak etorri dira, bata bestearen atzetik.

Gezuraren artean, erakargarriena hau zen: Supersurrak A-8ko trafiko astuna erakarriko zuela. Ez ziguten esan, ordea, zer egingo zuten hori lortzeko. Supersurrak ordainsari altua du eta, ez dituenek kamioilariak erakartzen, A-8an trafiko astuna debekatzea otu zaie. Beraz, A-8tik ez da kamioirik pasatzen, baina Supersurreretik ere ez, eta bertako trafiko astuna Txorierriko Korridorerako errebotatu dute.

Txorierriri beste behin egokitu zaio ordaintzea. Duela zortzi urte, Txorierriko Korridoreak Lezama igarotzen ez zuene-

an, soilik 14.000 ibilgailuk gurutzatzen zuten herria. 2010ean, aldiz, Korridore eta BI-737ren artean ia 70.000 ibilgailu izatera heldu da, horien %11 kamioiak direla. Baina dirudienez, gure eskualdea aireportuaren, inbasio industrialaren eta korridorearen ondorioz Bizkaiko kutsatueneraiko bat bada ere, ez da oraindik nahikoa kontribuzioa metropoliaren “garapenerako”. Orain, berriro guri ordainaraziko digute Foru Aldundiaren akats berria, eta Txorierrira bideratu dituzte lehen A-8tik pasatzen ziren 9.000 kamioetatik gehienak; Supersurra erabiliko ez duten berberak. Ez dago eskubiderik.

Bilbo “berriari”, bere Abandaoibarrari eta Guggenheimi distira ateratzea oso modan dago gure erakundeetan, moles-tatzen duena, zaborra, industria kutsatzailea eta zarata Txorierriri bezalako “atzeko patiora” jaurtiz. Politika honekin amaitu behar da. Gure eskualdeko Udalak behartuta daude bailara eta bertoko biztanleon bizi-kalitatea defendatzera, eta Foru Aldundiari eskatu behar diote hartutako neurriak atzera botatzeko.

*Izarne Agirre eta Txema Pico
(Lezama Bizirik auzo elkarte)*

URAS
Estetika eta masajea
Aita Patxi Ugaldé, 14 behega
Tel.: 94 455 72 01 - 48195 LARRABETZU (Bizkaia)

Oguiza
Hortz Klinika
Kirurgia eta implanteak
Ortodontzia
Estetika eta hortzak zuritzea
Protesi finko eta mugikorak
Hortzoiaren tratamenduak
Odontologia kontserbadorea
Garbitasuna eta prebentzioa
haur-tratamendua
konponketak
Anguleri enparantza, 1 • 48195 LARRABETZU • Telefonoa: 944558890

SARRIKOLA
OGITEGIA
Euskal pastela
Basemko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta
Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

GOITIDITZA, 7 B EZKERRA
48196 LEZAMA, BIZKAIA
EXCAVACIONES
AZURMENDI
epetargi@excavazurmendi.com
MOBILA: 649 102 122
TEL./FAXI: 944 554 158

Ortu ekologikoa atonduko dute berbalagunek



Berbalagun egitasmoaren partaideek burua ideiaz beteta dutela eman diote hasiera ikasturteari. Horrela, iaz antolatut zituzten ikastaroez eta ekimenez gain, hala nola padel ikastaroa, mendi irteerak eta museoetako bisitaldiak, oso tailer eta egitasmo berritzaileak jarriko dituzte martxan aurrean. Horietako bat Ortu ekologikoa da. Azaldu diguten bezala, 500 metro karratuko lursaila jarri dute Loiu

eta han sasoiko produktu ekologikoak landatzeko asmoa dute. Argibideak base-rrian eskarmentu handia duen lagun batek emango ditu, eta hasteko, soloa eta lurra zelan atondu behar diren azalduko die parte-hartzaileei. Gainera, aipatu digute aukera dutela, Txorierrin beste ortu bi jartzeko. Lurrak ematen dizkien produktuak ondo aprobetxatuko dituzte. Izan ere, horiek eta beste batzuk erabiliko

dituzte Txokoz txoko tailerrean. Ekime-nak ohiko platerak prestatzen ikastea du helburu, eta hilabeteen behin egingo du-te. Informatika eta eskalada tailerrak ere antolatuko dituzte. Azken hori aire za-baleko eskalada-murru batean emango da. Tailerretan edonork har dezake parte, eta lagun edo familiarekin batera egin daitezke.

Egitasmo guztiek euskararen erabile-ra bultzatzea dute helburu, eta hura bizi-tzaren edozein esparrutara zabaldu. Ho-rrren haritik, erdaldunak ere euskarara hurbildu nahi dituztela esan digute. Ho-rretarako, Facebook gizarte-sarearen bi-dez talde bat osatzeko asmoa dute. Plata-forman, egunerokotasunean jorrazteko elkarrizketak idatziko dira eta talde-ko kideek haiek kontsultatu eta ikasi ahal-ko dituzte edonon erabiltzeko.

Perretxikotan

Bestetik, irteera bat antolatu dute Dima-Altubera. Han perretxikotan ibiliko dira. Irteera azaroaren 12an egingo dute, eta hilaren hasieran perretxikoen gaine-ko informazioa bidaliko diete parte-har-tzaileei. Argazki kamera eraman beharko da irteerara, lehiaketa bat egiteko asmoa dute egun horretan ateratzen diren ar-gazkiekin. Taldea Zamudiotik irtengo da. Azaroaren 13an perretxikoak prestatzen ikasiko dute Zamudioko txokoan.

BASALBEITIKO TXAKOLINA

Baskiko Txakolina
Denbora 1976tik aurrera

Baski-ko Txakolina

Gotolteza buzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

Club Hípico Aretxalde

Pony club - Zaldiketa ikastaroak
Aisialdirako landak - Apopilo zerbitzua
Salto - Txangoak - Animalien heziketa

Telefona:
IBON - 659 90 75 88
Aretxalde buzoa, 89 • 48196 LEZAMA

**Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.**

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

**Pentsu
naturalak**

GOIKO TABERNA Taberna-jatexea
Emiliano

Mena berezako atzeraketa • Eguneko menua eta karta
Etxera eramateko platera • Jantziak eta edonoren
Itxakia atzeraketa • Jantziak zabaldu

R.º Gerdolteza, 1 • Tls. y Fax 94 455 41 10 • 48196 LEZAMA - Bizkaia

KIMA
Landarak

LANDARE APAINGARRIA

Gotolteza 59 • Tel.: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAI)



Film digitalak eta 3Dkoak, Sondikan

Sondikako Kultur Etxeak bereizmen handiko filmak eta 2D eta 3Dko filmak eskainiko ditu hemendik aurrera. Prezioei dagokienez, 2Dko pelikulek lau euro balioko dute, lehenengo aldiz ematen direnean; eta hiru euro, filmaren estreinaldia ez denean. Era berean, 3Dko estreinaldiek sei euro balioko dute; eta lau euro, estreinaldiaren ostean. Ikusleek betaurreko bereziak jasoko dituzte sarre-rarekin batera. Betaurrekoak filma amai-

tzen denean, itzuli beharko dira. Sarrerak txartel-leihatilan bertan, BBK-ko kutxazai-netan edo bbk.es webgunean, eta 94 431 03 10 telefonoan eskura daitezke.

Bestetik, Kultur Etxean kirolari lotuta-ko ikuskizunak, kontzertuak eta bestela-ko ekimenak ere emateko asmoa du Son-dikako Udalak. Adierazi dutenez, ezarri dituzten prezio merkeei esker aretora Txorierriko eta Bilboko lagunak erakar-tzea espero dute.

GABONETAKO LOTERIA

aikor!
teaterbikoa aldiakaria

69962

Txarriboda-bazkaria, Derion

San Martin Eguna dela-eta, hainbat txarriboda egiten dira Txorierriin. Haietako bat Derion egingo da azaroaren 19an. Lagun onak txokoa; izan ere, urtero legez, txarriboda-bazkaria antolatatu du Tximintx Derioko euskara elkarteak. Norma-lean, 70 edo 80 lagun inguru biltzen dira bertan, eta giro euskaldunez gozatzeko aukera izaten dute. Aurten, aurreko edi-zioetan gertatu den bezala, trikiti doinuek, abestiek eta bertsolariek girotuko dituzte txikiteoa, bazkaria eta bazkalostekoa. Nahi duenak izena eman ahal du AEK-ko Txepetxa euskaltegian, 635753595 telefonoan edo tximintx@gmail.com helbidean. Epea azaroaren 16an bukatuko da.



Ekimenak, emakumeen aurkako indarkeria salatzen

Azaroaren 25ean, Emakumeen Aurkako Indarkeria Ezabatzen Nazioarteko Eguna izango da. Horren haritik, ekimen sorta zabala antolatu da. Apika antzerki taldeak *Klik-klak* umeentzako ikuskizuna eskainiko du azaroaren 24an, iluntzeko 8etan, ipuin kontalari baten eskutik Loiuko Ludoketan. Derion, emakumeen aurkako indarkeria salatzen ibilaldia egingo dute azaroaren 25ean. Manifestariak arrastiko 7etan abiatuko dira San Isidro elizatik Udaletxera. Bertan manifestu bat irakurriko da. Egun horretan beste ekimen batzuk ere izango dira Larrabetzun eta Sondikan. Apika taldeak saioa emango du arrastiko 6etan Larrabetzun Angule-ri Kultur Etxean, eta Ipuin laburren



Lehiaketaren sariak banatuko dira arrastiko 7:30ean. Musika eta bertso-lariak giroa dute sari-banaketa. Sondikan, *Te doy mis ojos* zineforuma egingo da arrastiko 6:30ean Auditorioan.

Hilaren 26an, *Cruzadas cotidianas* bakarrikzeta izango da Sondikako Auditorioan. Saioa iluntzeko 8etan hasiko da. Zamudiotarren zineforuma egingo da arrastiko 7etan, eta hara doazenez *En tierra de hombres* filma ikusteko aukera izango dute. Lezaman, Argazki Lehiaketaren sariak banatuko dituzte, arrastiko 7:30ean, Kultur Etxean. Azkenik, Derioko Kultur Birikan hitzaldia emango da seme-alabek gurasoei ematen dizkieten tratatu txarrei buruz. Hitzaldia Sutondoan elkarrekin antolatu du, eta arrastiko 5etan izango da. Bessetik, puntu lilak banatuko dira udal-terrean, kultur aretoetan, ludoteketan eta gaztegunetan, leiho eta erakus-leihoetan jartzeko.

Derioko taekwondolariek jarraitzen dute tituluak lortzen

Doyan Derioko gimnasioko neska-mutilak teknika eta maila altuko taekwondolariak dira. Tituluak eta dominak lortzen dituzte parte hartzen duten txapelketa guztietan, eta oraintsu ere hala egin dute: urriaren 8an, Euskadiko Taekwondo Txapelketa egin zen 21 urtez azpiko kategorian, eta gimnasioko bost lagun aritu ziren bertan. Guztiak lehenengo sailkatuen artean geratu ziren. Markel Larrabeit final bikaina egin zuen eta horri esker lortu zuen urrezko domina. Aimar Lopategik finalaurrekoa irabazi, eta zilarrezko domina jaso zuen. Beste alde batetik, Andima Freirek, Gorka Duranek eta Mikel Sagrariok brontzezko domina bana eskuratu zuten.



hi-fi
nabigazioa
telefonis
segurtasuna
ahoketa
partisonalizazioa

Txorierr... 15
48150 Sondika Bizkaia
944 533 375

www.proaudiosondika.com
jose@proaudiosondika.com

Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net

karregatik gertu

AHOLKULARITZA - TASAZIOA
ALOKATZETAK - ERKUALDATZETAK
SALERAKETAK
SEGURO BILBAOEN AGENTZIA

Errementeria, 14 - 48150 Sondika
Tel. 944 531 928

Derioko Argazki Lehiaketak 600 euro banatuko ditu



DAT Derioko Argazki Taldeak Argazki Lehiaketa antolatzen du zazpigarren aldiz. Lehiaketan argazkigintza atsegin duen edonork har dezake parte. Gaia librea da, eta edozein lan mota aurkez daiteke, beste lehiaketa batzuetan saritutakoak izan ezik. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez hiru lan aurkeztu ahalko ditu. Lanak zuri-beltzekoak edo kolorezkoak izan

daitezke; hala ere, kategoria bakarra egongo da sariei dagokienez. Tratamendu informatiko guztiak onartuko dira, eta epaimahaiak bereziki hauek hartuko ditu kontuan: teknika, enkadratzea eta konposizioa. Lanek gehienez 40x50cm-ko neurria edukiko dute, eta tamaina bereko kartoi batean itsatsita aurkeztu beharko dira, irudien CDarekin batera. Kartoiaren atzeko aldean egilearen datuak zehaztuko dira: izena, telefono-zenbakia, helbidea eta posta elektronikoa. Argazkilaria elkarteren baten kidea bada, haren izena ere jarriko da. Datuok CDaren gutun-azalean ere idatziko dira. Lanak abenduaren 2ra arte aurkez daitezke Kultur Birikara, edo korreoz agindu: Anboto plaza, 5. 48160-Derío. Epaimahaiaren erabakia abenduaren 17an, goizeko 12:30ean, jakinaraziko da. Lan onenak ikusgai jarriko dira.

Guztira hiru sari emango dira: 300 euro eta diploma, bilduma onenari; 200 euro eta diploma, argazkirik onenari; eta 100 euro eta diploma, bigarren argazkirik onenari. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez sari bat jasoko du. Euskal Herriko Argazkilarien Elkartearen Federazioak Euskal Herrian bizi diren irabazleak gonbidatuko ditu Argizaiola Trofeoan parte hartzera.

Larrabetzutik Bilbora, oinez edo bizikletaz!

Lezamako trenbide zaharra berreskuratzearen aldeko mugimendua aspalditik dabil ekimenak antolatzen. Ibilbide hori prestatzeko eskatzen dute, handik bizikletaz edo oinez joan ahal izateko. Azken ekimena urrian bertan egin dute. *El Correo* egunkariak irteera antolatu zuen Artxandara, eta Larrabetzuko guraso talde batek ekimena aprobetxatu zuen, aldarrikapena berriro egiteko. Haien ustez, ezinbestekoa da hango tunela zabaltzea, Larrabetzutik Bilboraino bide natural batetik egin ahal izateko. Gurasoek testua zabaltu zuten irteeran parte hartu zutenen artean, euren aldarrikapenaren berri emateko, eta sinadurak batu zituzten.




**LIBRERÍA
SONDIKA
LIBURUDENDA**
ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.
JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN
Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
papergintza eta eskulanak
Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)

**TURREGOITI
JATETXEA**
Laurietako etorbidea, 27
48180 Lolo-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteturregoitia.com



elekma
LARRAZTEREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRAK
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TOSAK
Leherengo markak • Pizgarri onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY
Tasariari etorbidea, 25-3 N • 48180 Lolo
T: 944 539 232
www.elekma.es



Consulting
Sondika s.l.
Sabin Askolizaga
Aseguru agentzia
Allianz
609 473 746
Mitsine, 6. beheko
48150 Sondika-Bizkaia
T.: 94 453 18 07
Faxa: 94 453 60 27


NARTEGIA • URDAITEGIA
VICTOR
ARTISAU-ELABORAZIOA
Oskala ekoizten dugu:
odolosteak, borlitzak,
biastorra, solomoak...
Plater aurrekoizinatzen
Goini, 4 - 48150
Sondika - Bizkaia
94 453 16 17

t: Itxaso Marina

Kontxik (Larrabetzu) eta Anak (Ortuella) Garmitxa elkarteak sortu zuten orain hilabete gutxi. Semeen gaixotasunak estu lotu ditu emakume adoretsu bi horiek. Izan ere, Garikoitzek eta Mikelek ezin dute elikagairik hartu, eragin suntsigarria dutelako euren organismoarentzat. Umeek aminoazido-formula bat hartzen dute elikagaitzat. Gaixotasun arraroa da, oso kasu bakanak antzeman dira Estatuan eta atzerrian, eta medikuek ezer gutxi dakite hari buruz. Garikoitz eta Mikelen ametsa da inoiz jan ahal izatea beste edozein umek bezala, beste edozein pertsonak bezala, baina horretarako ezinbestekoa da ikerketa. Garmitxa elkarteak indarrak eta itxaropena zuzendu ditu ikerketara. Hala, beste ekimen batzuen artean, plastikozko tapoiak biltzeko kanpaina jarri dute abian. Tapoiak birziklatze-enpresa batera bidaltzen dituzte, eta enpresa horrek 300 euro ematen dizkie tona bakoitzeko. Biltzen den diru guztia ikerketan inbertituko da. Gure artean tapoiak biltzeko hainbat gune jarri dira, baina Garikoitz eta Mikelelen historiak gainditu ditu Euskal Herriko mugak, eta Estatu osoko lagunak dabilta umetxoei eta euren familiei laguntza emateko ahaleginetan.

Boom itzela

Elkartearen facebooka bisitatzea aski da konturatzeko nolako mugimendua sortu den sarean. Handik eta hemendik bidalitako elkartasun adierazpenak, laguntza eskaintzen duten lagunak mezuak... Eta tapoiz betetako zakuak, bazter guztietatik etorriak. Elkartea sortu zenean, ez zuten batere susmorik euren kausa hain handi bihurtuko zela. "Ikaragarria da nolako konpromisoa hartu duen jendeak gure semeen alde. Jendea Eibartik, Zumaiatik... etortzen da tapoiak ekartzera", aipatu digu Kontxik. "Are gehiago, Estatu mailako telebista-kateetan irten gineneetik, boom itzela sortu da. Hainbat lekutan ipini dituzte tapoiak biltzeko guneak: Barzelonan, Valentzian, Plasencian... Bestetik, elkarteak elkartasun eskumuturrekoak jarri ditu salgai, eta Malagan badago neska bat eskumuturrok egiten ikasi eta haiek saltzen ibiltzen dena... Hau guztia harrigarria da, benetan!". Laguntza-jarioa etengabekoa da eta zenbait enpresek ere egin dute bat elkartearekin. "Kamisetak



Tapoi solidarioen uholdea

Lerro hauek idatzi orduko, lau tona plastikozko tapoi bilduta zeuzkan Garmitxa elkarteak. Baina kopuru hori etengabe doa hazten. Garikoitz eta Mikelen alde sortu den elkartasun sare ikaragarria Estatu osora zabaldu delako.

atera ditugu, eta enpresa batek kamiseta guztiak eman dizkigu doan. Beste batek musu truk eman dizkigu autoetan jartzeko pegatinak... Beste batek lekua utzi digu tapoiak bertan biltzeko... Poz-pozik gaudela".

Plastikozko tapoiak, eskumuturrak, kamisetak, pegatinak eta Gabonetako loteria esku artean dituztela, Garmitxa el-

Tapoiak non batu

–**Derio:** Kultur Birika.

–**Larrabetzu:** Herri ikastetxea eta Udaletxea.

–**Lezama:** Herri ikastetxea eta Udaletxea.

–**Loiu:** Udaletxea.

–**Zamudio:** Herri ikastetxea.

–**Sondika:** Herri ikastetxea eta Artebe kiroldegia.

karteak medikuekin jarraitzen du harremanetan. Nahitaez. Semeen gaixotasunaren bilakaerari arretaz jarraitzen, eta pixkanaka-pixkanaka zabaltzen diren aukera berriak aztertzen. Borrokan, Garikoitz eta Mikelen antzeko sintomak dituzten umeen familiekin egin dute topo. Guztien ahaleginari esker itxaropen-sare erraldoia eratu da.



“La Rusia Blanca”

Sekulakoak entzuteko jaioak gara, eta oraingo honetan ere ez da gutxiagorako. San José Erandiogoikoko auzoa La Rusia Blanca bezala da ezaguna. Izendapen horrek Indumetal lantegian du jatorria, fabrika horrek izan baitzuen auzo horretako etxeak eraikitze ardua. Etxeak 50eko hamarkadako lehen urteetan altxatu ziren, fabrikako langileak bertan bizi ahal izateko. Gaur egun, etxebizitza berriak egin dituzte elizaren atzeko aldean, Bekoetxebarri auzoan, eta bertakoak La Rusia Rojakoak bezala dira ezagunak.

Argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti



FORMACION Y TRADUCCIONES

www.am-formacion.com

Garaioitza 120 D
48196 LEZAMA
T: 94 455 64 09

- INGELES ESKOLA
- MASA GIUTIAK
- AZTERKETA OFIZIALAK
- OSTERO PRESTAKUNTZA
- ONE-TO-ONE ESKOLA
- PRESTAKUNTZA ENPRESETAN
- ESKOLAK KASHEKO KLASAK
- ITZULPEN ZERBITZUA

info@am-formacion.com

Erremerterri 16
48150 SONDIKA
T: 94 453 64 08

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31




GARAIOLTZA, S.A.

PROMOZIOAK-ERAIKUNTZAK

Etxebizitzak
Merkataritza-lokalak
Garajeak
Lehen mailako eraikuntzak
Lehiate handiak
Ordaintzeko erraztasunak

Tel.: 94 455 50 19

Garaioitza auzoa, 128 (behea)
Lezama (Bizkaia)



"Publikoa guregandik gertu sentitze

t: Gaizka Eguskiza

Zelakoa da Sondikan ikusi dugun Barre egin ikuskizuna?

Izenak esaten duen bezala, barre egi-teko emanaldia da. Guztira zazpi *sketch*ek eta zazpi abestik osatzen dute ikuskizuna. Sketchetan bihurrikeriak egiten dizkiote elkarri pailazoek; eta kantei dago-kienez, denetarik dago, famatuena (*Txirri, Mirri eta Txiribiton, Altza Pelipe, Zapi zuria...*), baita hain ezagunak ez direnak ere. Gure ohiko ikuskizun bat da *Barre egin*.

Ez da Txorierrira etortzen zareten lehenengo aldia...

Ez. Baina aspaldian egon ginen, eta gogo handiz etorri gara.

Zortzi urteko ibilbidea du taldeak. Nolako bilakaera izan duzue hasi zinetenetik gaur egun arte?

Lehenengo bira egin genuenean, zaila izan zen, nork bere pertsonaia landu behar zuelako; gaur egun, ordea, bakoitzak primeran ezagutzen du bere pertsonaia. Gainera, konplizitate handia dugu gure artean.

Zuen ikuskizunetan dantzak, mo-zorroak eta sketchak daude. Baina parte-hartzea ere oso garrantzitsua da, ezta?

Ikuskizuna prestatu genuenean, publikoa hartu genuen oinarritzat, hau da, umeak eta gure arteko harremana elkar-tzea genuen helburu, publikoa guregan-dik gertu sentitzea, azken batean. *Sketch*ak egiten ditugunean aktoreok elkarrekin jolasten dugu eta joko horretan publikoak ere parte hartzea nahi dugu. Momentu horiek dira umeek gehien gozatzen dituztenak.

Batez ere haurrek osatzen dute zuen publikoa. Nahiago izango zenituzkete helduak? Ezberdintasunik badago euren artean?

Martxoan 40 urte beteko dira Txirri, Mirri eta Txiribiton elkarrekin daudela. Ibilbide luze honetan orain gurasoak direnak haurrak ere izan dira, eta aitona-amonak direnak, gurasoak. Beraz, ez dago ezberdintasun handirik haien artean. Euskal Herrian edonork ezagutzen

TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON JUNIOR | pailazoak

Pailazo mitikoak dira Txirri, Mirri eta Txiribiton, eta duela zortzi urte euren "seme-alabak" hasi ziren gurasoak imitatzen. Bere azken lana, *Barre egin*, Sondikan izan dugu urrian. Familia osoak ondo pasatzeko aukera ederra.



Juanma Zalduak
(Txiribiton Junior)

Kattalin Ansorena
(Mirri Junior)

Fernando Ruiz
(Txirri Junior)

Gorka García Llamosas
608 16 76 16
gorkiguay@hotmail.com

Txakur eta katuentzako pentusua
Prezio onean
Etxera eramaten dizugu

Aislamientos Derio Tabikeak

Pladurrezio sabaiak eta apalategiak
Sabai erregistragarriak

Isolamendu termiko eta akustikoa

Aiertza Ibaia plaza, 6 - 48160 Derio
T: 670 497 928 - F: 944 541 121
www.aislamientosderio.com

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa

Txanoni etorbidea, 9-4
410. bulegoa
48100 Derio

Telefonoa eta faxa:
94 454 44 58
a.amondarain@euzkadi.net

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

a nahi dugu"

ditu Txirri, Mirri eta Txiribiton, eta bai umeek, bai gurasoek, bai aitona-amonek oso ondo pasatu dute inoiz eurekin.

Txirri, Mirri eta Txiribiton "seme-alabak" izatea onuragarria edo kaltegarria da?

Juniorrok hasi ginenean, jendea harrituta zebilen ohiko Txirri, Mirri eta Txiribiton espero zituelako. Hala ere, gaur egun nahiko famatuak gara, *Triki traka trikitron* telebista saioan edo Euskadi Irratiko *Tortolikan* saioan parte hartu dugulako. Jendeak bereizten gaitu, eta jakin badaki gure ikuskizunetan ere primeran pasatuko duela.

Eta ez duzue inoiz izena aldatzea pentsatu?

Ez. Txirri, Mirri eta Txiribiton dira oinarria, eta nahiz eta aktoreak ezberdinak izan, pertsonaiak berdinak dira. Beraz, izena aldatzeak ez luke zentzu handirik izango.

Eta euskaraz jarraituko duzue lan egiten...

Bai, Txirrik, Mirrik eta Txiribitonek 40 urtean egin duten moduan. Orain errazagoa da ume euskaldun gehiago daudelako. Lekuaren arabera, egia da ezberdintasunak ikusten dituzula gaitasunari dagokionez, baina oro har, jendeak ulertzen du. Dena dela, salbuespena egin genuen urriaren hasieran; Madriletik ibili ginen



eta Euskal Etxeak gonbitatu gintuen Euskadiko Eguna ospatzen. Bertako jende asko euskalduna ez denez, zerbait egin genuen gaztelaniaz.

Pailazoak beti egon dira, baina Euskal Herriko umeek beste erreferente euskaldun bat ere badute: Pirritx eta Porrotx. Lehiakideak izatea ona ala txarra da?

Ez dugu inolako lehiarik ikusten gure artean. Are gehiago, eskaintza zabala dago hainbat ikuskizun ikusteko, eta hori pozgarria da. Gure ustez, aberasgarria da Euskal Herria bezain txikia den eremu batean hainbeste pailazo euskaldun egoitea. Izan ere, gu ez gara bakarrik.

"Jendeak oinarrizko Txirri, Mirri eta Txiribitonengandik bereizten gaitu"

"Ez dugu inolako lehiarik ikusten pailazo euskaldunen artean"

OPTIKA IKUSLAN
Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

HORTZ KLINIKA
Idoia Zubieta
Orain-jentzia & Hortz-esteta
HORTZ-PLANTEAK - ORTODONTZIA ESTETIKOA
HAURAK ZIN BILBOA
Dr. Areola kalea, 11 - 1. esk. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 63 22
Urbe plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 452 13 70

ZAMUDIOKO ESTANKOA
Tabakoak, tinbrea eta opariak
Talleri kalea, 5 ZAMUDIO
Tfnoa: 94 452 12 73

Baduzu arazorik nahi duzun lekura iristeko?



Etxebizitzetarako igogailuak

Eskailera igogailuak

Plataformak

Arazoei agur...



902 54 08 54 www.arlan.biz

"Pozik bizi izan naiz Madrilen"

NEKANE SUSTATXA I

saiakuntza klinikoen monitoreo



t: Gaizka Eguskiza

Hamazortzi urte zituela, Nekane maleta hartu, eta kanpora joan zen bizitzera lehendabiziko aldiz: Loiutik Gasteizera. Orain, 25 urte ditu, eta Madril bizi da. Tarte horretan, karrera ikasi du Araban, eta masterra, Madril. "Farmazia batean hasi nintzen lanean, baina aldaketa behar nuen. Ez nuen bizitza osoa bertan eman nahi, eta ez nekien zer egin. Orduan agertu zen Madril masterra egiteko aukera, eta hara joan nintzen. Eta ez naiz damutzen".

"Masterra egin eta gero, enpresa batek hartu ninduen, hasieran bekadun, eta ondoren langile. CRA (clinical research

Nekane Sustatxak Farmazia ikasi zuen Gasteizen, baina ez zuen botikaria izan nahi. Beraz, lana utzi, eta Madrilera joan zen master bat ikastera. Estatuko hiriburuan lana aurkitu du, baina abenduan itzuliko da etxera, eta gazte loiu-tarrak bere esperientziaren berri eman digu.

associate), hau da, saiakuntza klinikoen monitoreo egiten dut lan, eta saio klinikokoak egiten ditut. Laburbildurik, ikuskatzen dut nolako eragina duten botikek pazienteengan. Lanak nire denbora guztia hartzen du, eta batzuetan 19:00etan lana etetera behartu behar izaten dut neure burua". Hala ere, pozik dabil Nekane. "Urtebete barru ez dakit zelan ibiliko naizen, baina oraingoz gustura nabil."

Nekaneri gustatzen zaio Estatuko hiriburua. "Kultura arloan, Bilbon baino eskaintza zabalago dago. Gainera, hiri erdian bizi naiz, eta oso gertu daukat El Retiro parkea, eta askotan hara joaten naiz ibiltzera, eguzkia hartzera edo, besterik gabe, erlaxatzera. Eguraldia oso ona

Mascotas Maider

Konpainia animaliak
Tasakurren itxaropaindola
Osagarriak
Elkardura

Mungialde eta Gernikako eskolaren onakoa, 48160 Derio - T. 94 404 21 89

aldeko one
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Unibe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

-Especialitate guztiak
zentro bakar batean
-Aurrikortasun doan
-Especialitateak:
umeak

urel
Psicología Social
Psicología - Pedagogía - Logopedia

645 147 982
Mitxine, 3 beheak • 48150 Sondika
www.urel.es • urel@urel.es

da, eta uda, oso luzea". Bestalde, jende asko eta interesgarria ezagutu du Nekane Madrilén. "Gehienak ez dira hemen goak, kanpotarrak baizik, baina oso jatorrak dira". Hiriko trafikoa da gutxien gus-tatzen zaiona, "horrek estresa ekartzen diolako".

Itzulera Loiura

Hiri handiak desatseginak dira kanpotik etorri berri direnentzat. Nekane, ordea, pozik bizi da bertan. Dena dela, laster aldatuko da haren egoera, Euskal Herrira itzultzekoa baita abenduan. Enpresak hona ekarriko du, Estatuko iparraldean lan egiteko, "Euskal Herrian eta Kantabrian" batez ere. "Madrilera joan nintzenean, ez nekien zer gertutako zen. Pentsatzen nuen Euskal Herrira itzuliko nintzela noizbait, baina ez nuen espero hori hain arin gertatzerik. Dena dela, pozik nago itzulerarekin".

Madrilen eman duen urte honetan, Nekane "gurasoak eta familia" bota ditu faltan gehien. Ez da harritzekoa, "amazulotzat" jotzen duelako bere burua. Hala ere, aitortu digunez, "zail" egingo zaio

*"Madril nire bizitzako
etapa bat izan da;
laster bukatuko
da eta aurrera
jarraitu behar dut"*

gurasoen etxera bizitzera itzultzea. "Madril nire bizitzako etapa bat izan da. Gauza asko ikasi ditut han, baina laster bukatuko da, eta aurrera jarraitu behar dut. Etxekoak nire zain egongo dira, eta pozik ibiliko naiz Loian. Ezin naiz kexatu. Egia esateko, ez dakit zer gertatuko den etorkizunean. Lanean eskarmentua hartzea da oraindik nire helburua, eta gero, gero-koak".



**Hemen hasten da
Zamudio barria**



54 ETXEBIZITZA
2-3 LOGELA
204.000 €tik
Aurrera
(Aparkalekua eta Trasteroa barne)

ZAMUDIO

Vivienda y Gestión

Etorri geugaz 94 439 90 49

Konfiantza-kontua

IÑAKI AURREKOETXEA AURRE | arkitektoa

Zamudion jaioa, harro dago bere jatorriz. Arkitekto bizkaitarrek 30 urte baino gehiago daramatza lanean eta, besteak beste, proiektu hauek eraman ditu aurrera: Isozaki atea, Bilboko Campo Volantineko Hesperia Hotela, Domine Hotela, La Ceres eraikinaren birmoldaketa eta Miribilla Plana. Era berean, Administrazioan ibili da Etxebizitza eta Arkitekturako zuzendari. Horiek guztiek eskarmentu handia ekarri diote, proiektuei era ezberdinean eta pertsonalean aurre egiten laguntzen diona.

"Aurreko"-k, modu batean edo bestean, Bilbon garatu diren proiektu handienetarikoa askotan hartu du parte. Lan gogorreko urteak izan dira, zeinetan hiria berriro asmatu baita. Eta horretarako, eraikin berri bakoitzaren diseinu arkitektonikoa hartu du bere modernitatearen ikurtzat.

Ibilbide luze baten ostean, bere arkitektura-estudioa sortu duela eta bere eskola erreferente bihurtu dela, Iñaki jaioterrira itzuli da, Zamudiora. Eta berekin onena duena ekarri du: bere pasioa. Proiektu bat garatzeko itzuli da eta, betiko moduan, proposamen berria egin digu. "Aurreko" gaur egungo egoerara egokitu da, eta horren berri arkitektoak berak eman digu.



Jaioterrira itzuli zara, gaur egungo egoerara egokituta dagoen proiektu batekin. Krisialdian gaude murgilduta, baina batzuek aukera esaten diote hari. Zelan definituko zenuke zuk?

Krisialdian, aukera baino, beharrezana dagoela esango nuke nik. Ez dut neure burua gurutzat hartzen, ez dakit zein den konponbidea eta garai hobeak bizi izan ditugu. Gaur egungo egoerak iraultza sakona eskatzen digu. Eta horrek kontzeptuak eta formak aldatzera behartuko gaitu.

Nolako eragina izango du horrek Euskadiko etxebizitzan?

Etxebizitza gizartearen isla da. 1970. hamarkadan kooperatibak egiten hasi ziren eta garai hartan baliogarriak izan ziren, industria eta eraikuntza bezalako sektoreak salbatu zituztelako. Gaur egun horretara ari gara itzultzen, eta ziurrenik ez da kasualitatea izango.

Beste alde batetik, hain irainduak izan diren sustatzaileak desagertzen dabiltza, eta horien ordeztzaileak eraikuntzaren eredu berri batzuk dabiltza sortzen. Gero eta ohikoa da sustatzailea bezeroa bera izatea, hau da, etxebizitzan biziko den pertsona bera. Zergatik? Neurri ertaineko proiektu askotan (30-80 etxebizitza) jabeak biltzen dira: euren interesak batzen dituzte, etxebizitzak kudeatzen dituzten enpresak kontratatzen dituzte, ondasun-erkidegoa sortzen dute eta talde bakar bat bezala aritzen dira. Eta etxebizitzak kostaprezioan eraikitzen dituzte, askoz merkeago. Eta etekina, aurrezkia, erabiltzailearentzat. Etxebizitzaren prezioa birdoitu egin da eta bigarren eskuko etxebizitzaren prezioak behera egin du. Zorroztasuna nagusitzen da.

Gaur egun bankuek ez dute hain erraz mailegurik ematen. Hori kontuan hartuta, kooperatiba edo ondasun-erkidegoa eratzea "irtenbide" egokia izan daiteke etxebizitza erosteko?

Aukera bat da, baina enpresa kudeatzailea ondo aukeratu behar da. Gu, "Vivienda y Gestión" enpresa kudeatzailearen bidez, kooperatibak ari gara bultzatzen Txorierriko zenbait aldetan: jabeak ondasun-erkidegoetan biltzen dira eta kostaprezioan erosten dituzte etxeak. Eta eredu Zamudiora ekarri nahi dut. Kooperatibak bizi dugun garaira egokitzen dira: Arteagan 54 etxebizitza berri eraikiko ditugu eta nahi duenak etxea kostaprezioan erosteko aukera izango du. Kosteak mu-

rriztu egiten dira, eta zorroztasuna nagusitzen da, berriro ere. Hauxe da nire esperientzia. Konfiantza-kontua da. Enpresa kudeatzailearengan sinetsi behar dugu, baldin eta hark kudeaketa argia eta eraginkorra badu, eta zentzuzko prezioa eskaintzen badigu. Zehatz-mehatz azaltzen badizkigu etxebizitzaren gorabehera guztiak, eraikuntza-prozesuaz arduratzen bada, langileak fidagarriak badira eta era profesionalan lan egiten badu... Etxea erosi behar dugu, eta kudeatzaileek beharizan horri ematen diote erantzuna. Bezeroak konfiantza izan behar du kudeatzailearengan. Eta behar izanez gero, baita zalantzak eta beldurak helaraztea ere. Zelan ez.

Konfiantza-kontua...

Lehen aipatu dut nolako garrantzia duen enpresa kudeatzailea ondo aukeratzek. Zamudion oso esperientzia ona izan dugu "Vivienda y Gestión" enpresarekin. Ondo ezagutzen ditut eta badakit nolako profesionalak osatzen duten enpresa. Horregatik ez naiz beldur; guztiz kontrakoa, konfiantza osoa daukat eurengan. Kudeatzaileek euren lana egin

behar dute, eta euren presentzia gero eta handiagoa izango da sektorean.

Eta berriro egokituko gara?

Ziur nago egingo duguna. Beste erremediorik ez dago. Bizi-kalitateari dagokionez, "igotzea" errazagoa da "jaistea" baino.... Beraz, arinago egokituko gara, eta atseginagoa izango da.

Eta zein da Zamudiora ekartzen duzun proiektua?

Lehenik eta behin, Uribekoa erabat arrakastatsua izan zela gogoratu behar dut. Orain Arteagan gaude lanean. Momentura egokitzen gara, eta Arteagako etxebizitzak Uriben egin genituenak bezain merkeak izango dira. Etxebizitzak egitea da interesgarria, eta horretarako prezioa hartu behar da kontuan. Guztiok (jabeak, Udala, herria) egin nahi dugu azkar. Bidea zabaldu nahi dugu, premia bertute bihurtuz. Eta Zamudiokoa naizenez, ezin dut hutsik egin. Eta ez dugu egingo, konfiantza-kontua baita.

Hala izan dadila.... Bukatzeko, bixikeria azaltzea nahi dugu: Wikipedian agertzen zara, ezta?

Bai, hala da (kar, kar).



“Sobran daukaguz ilusinoa eta gogoa”

ALTZORA SONDIKAKO EUSKERA ALKARTEA

Ilusinoa adierazoten dauen alkartea da Altzora, eta kideen begietan eta irribarrean ikusi leiteke hori. Herrian euskerearen erabilera bultzatzea dau helburu, baita bideak zabaltzea be, sondikoztarrak euskeraz bizi ahal izan daitezcan. Itsasne Zubiri alkarteko presidentea da, eta Alfon Atela, alkarteko kidea. Biokaz egon gara barriketan.

t: Itxaso Marina / a: Jon Goikouria

Sondikan euskera alkarte bat egoitea aspaldiko beharrizan bat da batzuen eretxiz. Zelan animau zarie azkeanean bera osotzen?

Gabonetan, lagun batzuk batu ginan, euskeraz bizitzeko asmoa eta gogoa genduzanak. Herrian euskera eta euskal kultura sustatzeko, zer edo zer egin behar zala pentsau genduan. Eta horretarako, tresna egokiren bat behar genduala. Txorierriko beste herrietan bagenduzan ereduak: euskera alkarteak. Eredu horreei jarraituz, Sondikan be euskera alkarte bat sortu behar zala erabagi genduan. Halan jaio zan Altzora.

Pentsaten dogu beste euskera alkarteen laguntasuna ezinbestekoa izan dala alkartearen sortze-prozesuan.

Bai, izan be, hareek be ezinbestekotzat jo dabe Sondikan euskera alkartearen sortzea. Egia esateko, Totoan Txorierriko Euskera Alkarteen Federazioa hasieratik euki dogu geure atzetik, aku-luagaz, Altzora sortzera animaten eta laguntasuna eskaintzen.

Zein da euskerearen egoerea Sondikan?

Badagoz euskaldun asko, baina arazoa da ez daukiela ohiturarik euren artean euskeraz egiteko. Eguneroko bizimoduan

“Ekitaldiok euskerea gauza erakargarriakaz lotzeko tresnea izan behar dira”

“Beste hainbat gauza legez, hizkuntzea be altzotik ikasten da”



ikusten da argi: zalantzarik badago den-dariak edo tabernariak euskeraz jakingo ete dauen, erderaz botaten da lehenengo berbea. Bestetik, herrian antolatzen diran ekitaldi asko –umeei zuzendutako % 100, ziur asko– euskeraz izan arren, erderaa entzuten da hareen inguruan. Ekitaldiok euskerea gauza erakargarriakaz lotzeko balio behar dabela pentsaten dogu, gure hizkuntza kalera aterateko. Eta, halan, beste helburu nagusiago bat lortu: euskeraz bizitzea.

Zergaitik Altzora?

Euskereak babesa behar dauelako, eta, beste hainbat gauza legez, hizkuntzea be altzotik ikasten dalako.



TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrearragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

LEANDRO LANDETA



HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

LIBURUGENDA PAPERGENDA

ZAMUDIO

Gorbea kalea, 5
Teléfono / Fax: 94 452 29 10 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



*“Guregana euskeraz
ez dakien lagunak
hurbildu dira;
poztekoa da”*

ratzen ez daben lagunak be badagoz. Baina hareek euskerea maite dabe, eta horregaitik egin dabe bat gugaz. Poztekoa da benetan.

Hirurogeta bost lagun, kopuru ona da hasteko; halanda be, askoz gehiago izateko gogoagaz ibiliko zarie.

Ez izan zalantzarik. Laster ekingo deusagu bazkideak hartzeko kanpaineri. Gurea herritar guztiei zabaldua dagoan alkarte bat da eta, bertan parte hartzeko, ez da beharrezkoa baldintza berezirik betetea. Gauza bakarra eskatzen dogu, euskerea maitatzea, besterik ez. Besoak zabalik hartuko doguz Altzorako kide izan gura daben guztiak. Kanpaina AIKOR! aldizkariko lerro honeetatik hasiko dogu: euskeraz bizi gura dauenak 635 75 35 95 telefono zenbakira jo leike. Haren zain egongo gara!

Alkarte gaztea, baina herrian igar-ten hasi dana.

Pegatina lehiaketa antolatu dogu, eta txirrindulariakaz dabilen medikua etorri jakun berbaldia emoten. Udako Argazkiak txapelketea be egin dogu, frontenis txapelketea, kantu-poteoa Taberna Ibiltariagaz batera, sendabelar ikastaroa eta

Zelango harrerea euki dau herritarren artean?

Altzora jente-aurrean orain dala gitxi aurkeztu bada be, hilebeteak daroaguz ekitaldiak antolatzen eta herria girotzen. Herritarrek ahorrak aho euki dabe gure ba-

rra, eta asko dira gugana hurbildu diranak. Gaur egun 75 bazkide gagoz alkartean. Gainera, aitatu beharra dago gure ekitaldietan parte hartu daben batzuek ez ekie-la euskeraz; are gehiago, alkartean euske-raz ez dakien edo hizkuntza ondo menpe-

“Ez genekien munduko oherik onenak Bilbotik hain hurbil saltzen zituztenik.”

Colchonería Leioa La Avanzada 80, (Bilborako norabidea) 944 316 516	Colchonería Arteaga Derioko Seminarioa, (eguerdian zabalik) 944 545 147	Lotara Koltxoi-Denda Errebal 19, Eibar 943 202 784
---	---	---

www.SUITDELUX.com



barbakoa Tximintx eta Berbalagun alkar-teakaz... Ez dira oso ekimen ikusgarriak izan, baliabide gitxi euki doguz eta. Baina jentea animau egin da, eta ekimen batzuetan beste batzuetan baino eragin handiagoa izan dogu... Oso pozik gagoz.

Eragin handiagoa, hemendik aurre-ra?

Halan espero dogu. Jatetxeek-eta sasoiko platerak eta produktuak eskaintzen dituen legez, guk be sasoiko ekimenak prestau behar doguzala pentsaten dogu. Esate baterako, datorren urtean 500 urte beteko dira Gaztelak Nafarroa

inbaditu ebala, eta horren inguruan zer-bait antolatzeke asmoa dogu. Beste alde batetik, aurrera jarraitu gura dogu orain arte egin diran ekimenakaz, eta, denpo-rea igaro ahala, ekimenok sendoagoak eta arrakastatsuagoak izatea. Ideia pilo bat be badoguz; ekimen barriak, apurka-apurka martxan ipinten joango garenak.

Ideak nahiko finkatuta dozuez, beraz.

Geure ekarpena egingo dogu Sondika euskalduntzen laguntzeko, eta hori poz-tasunez egingo dogu. Euskereak ilusinoa behar dau, eta guk sobran daukaguz ilusi-

noa eta gogoia. Ilusino barik ez goaz inora, eta gu ilusino-saltzaileak izan behar dogu. Ilusinoz ganezka bagagoz, jenteak bat egingo dau gugaz, eta talde ederra osatzea lortuko dogu. Are gehiago, euskerea ilusinoagaz eta ekimen erakargarriakaz lotzen badogu, etorkizun handiko alkar-tea izango da Altzora.

Herriko taldeakaz behar egiteko asmorik?

Jakina! Ekimenen arabera joko dogu talde batera edo beste batera, eta guztiak hartuko doguz kontuan. Oso garrantzi-tsua da herriko alkarteok batuta egotea

Badaukagu beste tresna bat euske-rearen normalizaziorantz pauso sendoak egiteko: Altzora Sondikako Euskera Alkartea. Irailaren 24an aurkeztu eben jente-aurrean. Herriko Kultur Etxe-an batu ziran Txorierrri osotik etorritako lagunak, euskaltzaleak, euskera alkar-te-en ordezkariak eta, zelan ez, alkar-te sortu barriko kideak. Ekitaldia Patxi Ugalde kazetari eta aktore ohiak aur-keztu eban, eta berak emon eutsen ber-bea betan parte hartutako guztiei: Alfon Atela Altzora alkar-tearen ordezkaria, Belen Gana Txepetxa AEK euskalte-giaren arduraduna, eta Xabier Goiene-txe Totoan Txorierrriko Euskera Alkar-te-en Federazinoaren presidentea.

Hizlariok ezinbestekotzat eta ga-rrantzitsutzat jo eben alkar-tea sortzea, Sondikan euskeraren erabilerea eta normalizazinoa sustatzeko. Horrezaz ganera, Atelak eskertu zituan Txorierr-riko beste euskera alkar-teek eta erakun-

“Oso babestuta sentidu gara”



“Alkarregaz jarduten badogu, zabaldu egingo dogu Txorierriko euskaldunen sarea”

eta alkarregaz behar egitea, holan herritarren artean kohesino handiagoa lortzen dalako, eta alkarrean beharra erakargarriago bihurtzen dalako.

Txorierriko beste euskera alkarreak?

Derrigorrean. Helburu komunak doguzalakako –Baserri Antzokia, besteak beste–, eta, hareek aurrera aterateko, ezinbestekoa dalako indarrak batzea. Konpartitzea polita da, eta erronkei errazago egi-ten jake aurre, beharra alkarregaz eginez.

Eta Altxora beste lotura bat be izan- go da txorierriararren artean.

Alkarregaz jarduten badogu, lortuko dogu eskualdeko euskaldun guztiak bat- zea, eta zabaldu egingo dogu Txorierriko euskaldunen sarea. Aukera gehiago euki- ko doguz euskeraz egiteko eta alkar eza- gutzeko.

deek emondako laguntasuna eta babe- sa.

Euskereak eta euskal kultureak euren lekua euki eben aurkezpenean. Halan, saio bat eskini eben Gorantzaleak dan- tza taldeak, Ipar-elaiak txistu taldeak eta Pentagrama soinu alkarreak, eta, beste alde batetik, Eñaut Intxaurraga bertsola- riak bertsotan egin eban. Udako Argaz- kiak lehiaketaren irabazleari emon eutsien saria, eta Kherau taldeak musi- kea jo eban. Ekitaldiaren ostean, kopaua eskini eutseen Kultur Etxera batutakoei.

Itsasnek eta Alfonek aitatu deuskuen legez, alkarreko kide guztiak pozarren dagoz Altxorak euki dauen harrera zaba- lagaz. “Poztasun handia emon euskun aurkezpenean hainbeste lagun batzeak: hainbat alderdi politikitoko personak, herriko ordezkariak eta beste taldeetako kideak, Txorierriko euskera alkarre- tako jentea... Oso babestuta sentidu ginan egun hatan”.



Urtzagaz Itzala Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
48160 - DERIO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako zentroa



Urtzagaz Itzala
kalitate-kudeaketaren euskal saria
lortzen duen LHko
Buzkako lehenengo ikastetxea



Gure taller eta laborategiak ezagutzera etorri
ATE IREKIEK JARDUNALDIA
Ekainaren 3an, 18:30ean

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Diseinua fabrikazioa mekanikoa (2.000 ordu)
- Diseinua fabrikazioa mekanikoa Goi maila (2.000 ordu)
- Produzioaren programazioa Goi maila (2.000 ordu)

KIMIKA

- Ingurumen-kimika Goi maila (1.400 ordu)

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Erregulazio eta kontrol automatikoen sistemak Goi maila (2.000 ordu)
- Telekomunikazio eta informetika sistemak Goi maila (2.000 ordu)

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Merkataritza eta marketin gestioa Goi maila (1.400 ordu)

Batxillergo tekniko eta zientifikoa

OSTEOPATIA-ZENTROA
ESKU-TERAPIAK
Lasai
Luis M^a Asensio
Osteopata
Larrabari, 1 Iorja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatialasai@gmail.com

KAFETEGIA
IAZI
JATETKEA
Jata kalea, 2 - DERIO
Tel: 944 54 29 56

IKASGELA
AKADEMIA
Aita Patxi Ugalde, 12
48195 LARRABETZU (Bizkaia)
Tel.: 615 707 361
ikas03oa@gmail.com
angel.u98@gmail.com

Euskal Herriko bizimodua eta hizkuntzak partekatu nahi dituzu estatubatuar batekin?

- 15-20 urtera arteko neska-mutalak
- Hilabeteko egonaldia
- Ekainaren 24tik uztailearen 24ra

Ate joka dogu San Martin

a: Zamudiorain!, Jon Goikouria

Danok dakigun gauzea da Zamudio-ko mortzilak dirala munduko onenak. Jaietako lehenengo egunak gustu ona itxiko deusku ahoan, azaroaren 10ean Mortzila Lehiaketean egingo dalako bosgarren aldiz. Txapelketan jabetxeek, harategiek eta partikularrek hartu leikie parte, eta mortzilak Zamudioko erara egin beharko dabe. Horretarako, osagai honeek erabili beharko ditue: txarri-gantza, txarri-odola, kipulak, porruak, arroza, perejila, pipermina eta gatza. Mortzilak arrastiko 8 eta erdietan aurkeztu beharko dira pelotalekuan; halanda be, etxean egin ahal izango dira. Epaimahaia herriko mortzilagile bik osatuko dabe, eta guztira hiru sari emongo dira: 200 euro, irabazleari; 100 euro, bigarrenari; eta 50 euro, hirugarrenari. Izena azaroaren 7a baino lehenago emon behar da Udaletxean bertan, edo 944060998 telefono zenbakira deituz. Bestetik, pelotalekura doazanek mortzilak dastatzeko erea eukiko dabe egunean.

Barikua zaindariaren eguna izango da. Meza ostean, kopaua eskiniko da, eta arrastian Karta Txapelketean eta umeentzako puzgarriak egongo dira. Bizardunak, Bongo Botrako eta Trikizio taldeak musikea ipiniko deusie gauari. Zapatua

*Koadrilek euren
indarra neurtzeko
aukerea eukiko
dabe zapatuan*

Jai-batzordeak arrastiko 7etan pregoia irakurri, eta hasiera emongo deusaz sanmartinei Zamudion. Handik aurrera, herritarrek jai giroan ibiliko dira lau egunez.

Jai-egitaraua



Azaroak 10, eguna San Martin bezperea

17:00: Mortzilak ikusgai.
19:00: Pregoa, jai-batzordearen eskutik. Kartel Lehiaketaren sari banaketan, buruhandiak eta karamelu jaurtiketea.
20:30: Mortzilak aurkeztea, pelotalekuan.
20:45: Mortzilak dastatzea, pelotalekuan.
21:00: Fanfarrea.

Azaroak 11, barikua San Martin Eguna

12:00: Mezea.
12:30: Kopaua eta trikitilariak.
16:00: Karta Txapelketean, Adintsuen Etxean.
17:30: Puzgarriak, eskolan.
23:00: Kontzertuak: Bizardunak + Bongo botrako + Trikizio.

Azaroak 12, zapatua San Martintxu

11:00: Umeentzako jolasak, pelotalekuan.
12:30: Kalejireia.
15:00: Herri bazkaria, pelotalekuan.
17:00: Mihiluze saioaren finala, pelotalekuan.
18:00: Koadrilen arteko erronkea.
20:30: Jazz-blues kontzertua: Gin Tonic taldea.
23:00: Zutik + La Pulqueria + Kantuk.

Azaroak 13, domekea

12:00: Mezea.
12:30: Kalejireia.
13:00: Dantza agerraldia, Hiru bat dantza taldearen eskutik.
18:00: Zamudioko diskoaren aurkezpena.



Parte hartu
gure jaietan



Jaiak
euskaraz bizi!



Restaurante **SAN MARTINETAN TXARRIBODAK**
Restaurante
JANA-JATETXEA
Eguneko menuak
Menu bereziak
Jaunartzeak, bataioak eta ezkontzak
Torrelarragoiti ind. P-7
48170 ZAMUDIO (Bizkaia) Tel./Faxa 94 452 06 64

CEMAN
CONSTRUCCIONES
César López Guerra
Tel: 94 452 09 05
Móvil: 605 727 375
Ugaldeguren Ind., 3
26-1. partela, 2. nabea
48170, ZAMUDIO-Bizkaia

*Jaietan be,
euskara jalgi hadi
Zamudioko herrira*
LA GATZU
ZAMUDIOKO
EUSKERA
AUKARTEA
www.lagatzu.org
**zamudion
euskeraz?
hoba ez!**

TOLDOS TXORIERRI
TOLDOS B. GOYOAGA
Lona industrialak
Sareak
Eguzki-ohialak
Alokatzeko lonak
Torrelarragoiti ind, P2
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 12 58
Faxa: 94 452 07 44
Gasolindegia ondoan

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA
94 452 1616
94 452 1624
Pol. Torrelagoiti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA
ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA

ESTILISTA
EVA ARDINES
AmAr
Neska-Bizilagileak
ILEAPAINDEGIA
Asteartea - Ostirala: 9etara-19etara
Larunbata: 9etara-14etara
Urte Plaza, 1 - Behea 48170 Zamudio
Telefonoa: 94 452 04 19; (Aurreko txanda)

Espezialitateak:
Pintxoak
Plater konbinatuak
Iberikoak
Lehendakari Agirre plaza, 2
48170 Zamudio
94 456 11 14
Crazy Guitar
Zamudio

Mortzila Lehiaketea egingo da bosgarren aldiz

umeen eguna izango da. Pelotalekuan hainbat jolas eukiko ditue lagunakaz tarte atsegin bat paseteko: scalextric-a eta auto telegidatuak, besteak beste. Herri-bazkaria be egongo da eta herriko koadrilek euren indarra neurtzeko auke-rea eukiko dabe. Halan, koadrilen arteko errokea antolatu da egun horretarako, eta parte-hartzaileek erakutsi beharko dabe eurak daukiela indar, arintasun eta abileziarik handiena. Ha oso ekimen poli-

ta izaten da eta, horregaitik, jai-batzorde-ak Zamudioko koadrila guztiak animau gura ditu bertan jardutera. Badakizue, zenbat eta gehiago, hainbat hobeto. Indarrak arin barritu beharko dira, gaua be laster etorriko dalako. Eta luzea izango da, gainera. Gin Tonic jazz-blues taldeak kontzertua eskiniko dau iluntzeko 8 eta erdietan, eta honeek hartuko deusie txandea gaueko 11etatik aurrera: Zutik, La Pulquería eta Kantuk. Soinu ona zapa-tu gauerako.

Domeka jaietako azken eguna izango da. Dantza agerraldia izango da Hiru bat dantza taldearen eskutik, eta Zamudioko diskoa aurkeztuko da jente-aurrean. Disko horretan, belaunaldirik belaunaldi heldu diran herriko kantak batu dira. Mol-daketak Xabi Aburrizaga trikitilariak egin ditu, eta herritarrek hartu dabe parte gra-baketan.



XXVI. Azokea

Ohikoa denez, jaien aurreko astebu-ruan Zamudioko Azokea izango da, eta haren barruan Euskadiko Limusin abelgorrien Txapelketea egingo da. Era berean, Lagun probazaleak talde-ak idi-probak antolatu ditu azaroaren 4, 5 eta 7rako. Idi-probak iluntzeko 8 eta erdietan izango dira.

Azaroak 5, zapatua

Euskadiko Limusin abelgorrien XIX. Txapelketea

10:30: Ganadua piseteta.

11:00: Umeentzako talo tailerra.

12:00: Abere lehiaketea (emeak).

12:00: Sukaldaritza Txapelketea, umeei zuzendua.

13:00: Taloak dastatzea.

17:00: Abere lehiaketea (harrak).

Azaroak 6, domekea

10:00: Limusin abelgorrien, Zamu-dioko ganaduaren eta nekazaritza produktuen erakusketea.

12:00: Txakolinaren eta gaztaiaren dastatzea.

12:00: Txapelketako behi, zezen eta ganadutegi onenaren aukeraketea.

12:45: Txapelketako sari eta garaiku-rreren banaketea. Osteen, enkantea.

13:30: Nekazaritza Lehiaketako sari eta garaikurren banaketea.



La Pulquería taldea

Peñasko
arraindegia

Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

RPM
MAYORISTAS INFORMÁTICOS

ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA

Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

BAR RAFI
ESPEZIALITATEA: PINTXOAK

Rafael García Tejero

Oiz Kalea, 5
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

T: 94 406 08 08
Mobila: 607 406 613

AUTO-ESCUELAS
BASURTO
ESCUELA DE CAMPEONES

BAIMEN MOTA GUZTIAK

- Garraiolarietako trebakuntza
- A.D.R. (gai arriskutsu)
- C.A.P.

► BILBAO - T: 944 275 898
► ZALLA - T: 946 390 425
► SODUPE - T: 946 398 521
► ZAMUDIO - T: 944 522 482

www.autoescuelasbasurto.com

ZAMUDIOKO BATZOKIA
Txorierriko et., 3
48170 Zamudio - Bizkaia
94 452 27 25



*laster zabalduko
da berriro!*

Caserio
Lubarrieta

Jatetxea

Arteaga auzoa, 17 - 48170 ZAMUDIO
944 522 725

Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra



Arbotantxa kalea, 9 - Txark,
ZAMUDIO
Tel/Fax: 94 452 29 10
Móvil: 665 70 33 12


hotela
jatetxea
aretxarte

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com


Fle-apaindegia
M^a Antonia Llodio
Txorierriko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)


luz zamudio
ARGI APARATUAK

Nekazari kalea, 4 (lonja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia

OSKARBI
fotografoak
JOSEBA APEZETXEA

TALLER KALEA 3
48170 ZAMUDIO BIZKAIA
TEL: 944 520 014 / 607 400 078
E-mail: apeze@euskalnet.net



Inaki 94 455 65 08
Jabi 94 452 14 31

Magalarte
txakolina

ARETXARALETA HIRUEN ETA BOSTALAKIA


75 cl. 10,75 % vol.


Fleapandegia
Ana Belén
estetika - solariuma

Perretxiko, 4 lonja - Tel.: 94 403 68 60 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Gorbeia, 7 Behea
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 452 21 41
Faxa: 94 452 21 42
www.gestionzamudio.com
gestionzamudio@gestionzamudio.com

Gestión Zamudio
Aholkularitza Fiskala
Jon Vázquez García
AKTUARIO-EKONOMILARIA


t/a: Itxaso Marina

Saioaren izenak kontrakoa adierazoten dauan arren, handik estres barik urten zala aitatu deusku, "oso urduri jarten dan persona ez nazalako". Saioaren barri facebook-en bidez euki eban, eta produktino-etxeko ordezkariak luzatutako gonbidapenari nahiko arin esan eutsan baietz. Izan be, Asierrek oso harreman estua dau sukaldaritzagaz. Zaletasuna etxetik jatorriko, ama eta amamarengandik, eta astero Lezamako txokoan batzen da lagunakaz, afariren bat-edo prestatzeko. "Oso sukaldari ontzat ez dot neure burua, baina nahiko maila ona dodala uste dot".

Lezamarra beste hiru lagunakaz batera ibili zan saioan, eta bakotzak plater bat prestatu behar izan eban. "Nik ez neban ez postrea ez arraina kozinatu gura; eta lebatza saltsa berdean prestatzea tokau jatan". Plater hori askotan kozinatu dau etxekoentzat; halanda be, arraina kontu handiz ibili behar dan jatekoa da. "Lar egiten bada, sikatu egiten dalako, eta saltseak be galtzen daualako. Eta gitxi egiten bada be, arazoa badago". Gainera, saioaren zaltasunetarikoa bat hau da: platera prestatzeko, parte-hartzaileek ordu bi badabez be, ez dabe denporea neurtzeko erlojurik. Hori eretxira egin behar dabe. "Buruz ordenatzen dozuz jarraituko dozuzan pausuak, baina gatxa da bako-txean zenbat denpora emongo dozun zehatz-mehatz jakitea. Adibidez, lebatza arraintegitik datorren moduan jaso neban, eta garbitu behar izan neban. Txirlak

Estres bako sukaldaria

Saioan parte hartuko ebala ez euskun esan, baina guk telebistan ikusi dogu, zappinga egiten gengozala. Asier Saenz Dañobeitia *Menú stress* ETBko *reality*-n aritu da orain dala hilebete batzuk, eta guk lezamarrarengana jo dogu, gure jakingura asetzeko asmoz.



GUEDAN
servicios deportivos, s.a
Jesusen Bhotza plaza, 5 - Euzkalduna er. 7, 1. dptoa
48001 Bilbo Tel.: 94 439 80 10 - Faxa: 94 439 87 12

ZAMUDIOKO UDAL KIROLDEGIA
Tel.: 94 452 21 28 - Faxa: 94 452 30 74

Garmendia
ardoak

Pirra pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49

CAFE-BAR
BIDE-GORRI

Era askotako pintxoak - Plater konbinatuak
8.00etatik irekia

Txinbo Kalea, 9
48170 ZAMUDIO (Bizkaia) Tel. 94 452 26 75

BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Txorierrin

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com

be garbitu, fumeta egin, arrautza galda-rraztau, hamar lagunentzako anoak atara... Denporea kontroletea ez da bape erraza, eta hori da hain zuzen be saioaren koska”.

Ardao botila

Oso epaimahaikide zorrotzak ziran saioakoak, eta parte-hartzaileei nahiko puntuazino bajua emon eutseen orokorrean. Asier hirugarren lotu zan, eta aitor-tu deusku harrezkero ez dauala barriro lebatzik kozinatu. “Txarri-masailak gura-go neukezan prestau, ha nahiko ondo ateraten jatan platera dalako. Ganera, okela gitxi edo asko egiteak ez dakar arrainak beste arazorik. Are gehiago, surtan denpora luzean eukiteak laguntzen dau, saltsea loditu egiten dalako”.

*“Sukaldean nahiko
maila ona
dodala uste dot”*

*“Ez neban ez postrea
ez arraina kozinatu
gura; eta lebatza saltsa
berdean tokau jatan”*

Esperientzia polita eta bitxia bizi izan ebala aitatu deusku Asierrek. Saioa Eibarreko txoko baten grabau eben, eta, telebistak dauanak alde batera itxita (beroa, lagun asko leku txiki baten, grabazino-orduak...), ondo pasau eban. Parte-hartzaileen arteko harremana be oso ona izan zan; hain ona, ze hozkailuan egoan ardao botila alkarregaz edatea erabagi eben. “Saioak parte-hartzaileen artean lehia apur bat sortzea be badau helburu. Halan, lau lagun egon ginan oso sukalde txiki batean, tresnak eta suak partekatu behar izan genduzan... Baina hasiera-hasieratik euki genduan argi ondo moldatzen saiatuko ginala, eta arazo barik ibili ginan”.

Saiotik pozik urten zan arren, lezamar-rak baditu kritika batzuk programaren formatuari egiteko. “Lehenengo eta behin, lehiakide bakotxak plater ezbardin bat prestau genduan, eta, nire eretxiz, ez da gauza bera gazpatxoa, arraina, okela edo postrea baloretea. Guztiok plater bardina egin beharko gendukeala pentsaten dot. Eta denporea erloju baten bidez neurtzen itxi beharko leuskiguela. Bestetik, txirlak baino ez nebazan euki lebatza prestatzeko; faltan bota nebazan zainzuriak, idarrak...”

Asierrek ez dau zalantzarik eta sukaldaritza arloko beste saio baten parte hartuko leukela aitatu deusku. “Baina beste formatu bateko programa baten: etxean kozinatu, lagunak konbidatu... Eta merkatura joan, erosketak egitera. Erosketetan ibiltea itzel gustaten jatelako”.

Arrozaren maisua



Sukaldari ausarta da Asier, sute-gietan barritzea gustaten jaken horretako bat. “Osagarri askogaz ahalegintzen naz. Pikantea gustaten jat, Mexikoko, Indiako eta Hego Amerikako sukaldaritza, espeziak erabiltea...”. Azaldu dogun legez, lezamarrak ia danetarik egiten dau: entsalada bereziak, mihina saltsan, besigua... “Danetarik, postrea izan ezik, oso gozozalea ez nazalako”. Baina zerbait ondo ateraten bajako, hori arroza da. Asier gauza da edozein muetatako arroza prestatzeko: saldatsua, baltza, paella... Lagunek eta senideek dinoe hatzak miazkatzeko modukoa egiten dauala. “Saioan arroza prestauz gero, ez dakit irabaziko neukean, baina ziur nago postu hobea lortuko neukeana”.

GAMINIZ
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212. Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com

ERREKA
JAT
ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

Vértigo

GONZALO PEREZ PASTOR
Zuzendari kudeatzailea

IKUSKIZUNEN ANTOLAKUNTZA ETA AHOLKULARITZA

Torrearragoti ind. P 8-B
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
e-mail: gonzalo@vertigo.es
Tel. 94 452 22 59 - Faxa 94 452 22 34

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



SANTI MAMI
ALBAYARITZA

Nerea Pedrosa Cals. 517
COOP. CANADIERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15



Kirolaren kultua

Kulturismoa gihar handi eta distiratsuak baino zerbait gehiago da. Kirola da, eta kulturismoa egiten dutenek kirola maite dute. Artabe Sondikako gimnasioan baditugu kulturista batzuk. Lander eta Edu horietako bi dira, eta eurekin egin dugu berba.

t: Gaizka Eguskiza

Lander Vázquezek 26 urte dauzka eta gizarte-hezitzaile da lanbidez. Betidanik izan da kirolaria eta mendizalea. Hamasei urte zituela, igeri egiten zuen, baina nekatu egin zen eta kulturismoari ekin zion.

“Oso gustura sentitu nintzen hasiera-hasieratik”, dio Landerrek. Edu Terán ere kirolari peto-petoa da. Hogeita bost urteko informatikako eta telekomunikazioetako teknikaria bizikletaz joaten da lane-ra. Gainera, astean hirutan egiten du korrika, eta egunero joaten da gimnasio-ra. “Nire asmo bakarra kirola egitea da”, esan du. Biek egiten dute kulturismoa, baina Landerrek Edu baino serioago hartu du.

Eduren esanetan, “kulturismoak harapatzen zaitu: hasiera gogorra da, giharretan mina duzu-eta, baina gero oso pozgarria da tentsioa askatzen laguntzen dizulako. Gainera, kirolari esker gustura sentitzen naiz nire buruarekin”. Landerren giharrak ikusgarriagoak dira. Bere ustez, kirola baino, “bizimodua” da kulturismoa. “Entrenamendu bakoitzak ekartzen dit poztasuna. Txapelketak ondo daude: eszenatokian zaudela txaloak entzuten dituzu, eta haiek lan gogorraren saritxoa

ZAMUDIOKO KAMARA KORALA



MOVIL: 695 759 211 - 657 775 911
EMAIL: idazkaritza@zamudiokokamarakorala.eu
WEB: www.zamudiokokamarakorala.eu



dira. Baina nik ez dut horregatik egiten kulturismoa. Niri horrek dakarren egunerokotasuna gustatzen zait. Gogorra izan daiteke, baina halaber polita ere bada, nork bere buruari exijitzen diolako. Kirol guztietan gauza bera gertatzen da: gero eta marka hobeak lortu nahi dituzu”.

Kulturismoari lotutako hainbat aurreiritzi daude. Haietako bat dietarena da. Eduk ez du “inoiz” dietarik egin, koipe handirik ere hartzen ez duelako. Dena dela, jendeak egunero hiru-lau aldiz jaten duen bitartean, berak bost aldiz jaten du normalean. “Janari-kopuru txikiagoa, baina maizago”. Landerrentzat, ordea, gogorragoa da elikadurarena. “Lehiaketaren batean parte hartzen baduzu zorrotzagoa da prestakuntza: ordu gehiago entrenatu behar duzu, ezin duzu alkoholik edan.... Baina sakrifizioa ez da hainbesterakoa”.

Kirol honen inguruan sortzen den beste zalantza bat osasunari dagokiona da. Osasuntsua da kulturismoa epe luze-
ra? Gure kirolariek argi dute. “Gehiegikeriak txarrak dira edozein esparrutan. Giharrak lantzea berez ez da txarra, baina entzun behar diozu zure gorputzari: gehiagorik ezin badu, ezin zaio gehiagorik eman. Bakoitzaren gorputza eta gaitasunaren arabera entrenatu behar da. Baina ez du zerikusirik adinarekin. Gimnasioan atleta edadeko batzuk daude eta itzelak dira”.

Giharrak handitzeko, makinetan ibiltzen dira Edu eta Lander, eta gainera korrika ere egiten dute. Normalean ordu eta

Edu: “Kirola egiten dut bizi-kalitatea ematen didalako”

Lander: “Kulturismoa bizimodua da; entrenamendu bakoitzak ekartzen dit poztasuna”

erdi entrenatzen dute egunero, baina txapelketa gertu badute, bi ordutik lau ordura bitartean ematen dute. Euren ustez, oso garrantzitsuak dira Artabe Sondi-kako gimnasioko entrenatzaileak, Unai Atxa eta Javier Pérez. “Aurrera egiten laguntzen digute: lagunak, entrenatzaileak, maisuak... dira. Konfiantza ematen digute”.

Baietz txapelketara joan!

Bion erritmoak ezberdinak izan arren, biek hartu dute parte txapelketetan. Edu txantxa eta apustu baten ondorioz joan zen bere lehiaketa bakarrera. “Baietz txapelketan parte hartu!”, esan genuen gimnasioko lagun batzuok. Azkenean neu bakarrik sartu nintzen lehiari eta apustua irabazi eta kobratu egin dut (kar, kar). Txapelketaren esperientzia itzela izan zen, primeran pasatu nuen”. Landerrek 2008an hartu zuen parte bere lehendabiziko txapelketan, eta 2010ean Euskadiko txapelduna izan zen.

Etorkizunari begira, biok jarraituko dute kulturismoa egiten. “Bizitza normala egingo dut: entrenatzerakoan, jaterakoan... Ez dakit beste txapelketaren batean parte hartuko dudan. Gogoaren arabera. Kirolak bizi-kalitatea ematen dit eta hura lortzen dudan heinean, kirola egiten jarraituko dut. Gainera, ez dut Lander bezain gihartsua izan nahi”. Landerrek, ordea, erronka argia jarri dio bere buruari. “2013. urteari begira pisua hartu eta maila altuago batean sartu nahi dut lehiari.” Biak dira kirolariak; biak, kulturistak.



Lander Vázquez

Kitchen sukaldeak
Bertoko sukaldeak, kalitate oneko sukaldeak

ERAKUSKETA
SALMENTA
INSTALAZIOAK
ARMAZIURAK, SUKALDE ETA BAINUGELAKO ALTZARIAK

Tf.: 94 556 85 69
Faxa: 94 556 85 70
kitchensukaldeak@euskalnet.net

Txorierriko etorbidea, 9
Arteaga eraikina
48160 Derio (Bizkaia)

eleizalde
kafetegia

Lainomendi, 7
(Elizaren aurrean)

48160 DERIO
Tél.: 94 454 52 88

ELORRIETA
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Urbe kalea, 12 beheko Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

Inmobiliaria
ETORKI

Mungialde etorbidea, 4 baxo
Tél. 94 454 50 53
Móvil: 607 32 35 53 48160 DERIO

MARMOLGINTZA
GOYO
SUKALDE-GAINEKOAK OBRAK HILERRIAK

Ugaldeguren 1 ind. 10-B nabes
48160 Derio, Bizkaia
T.: 94 454 82 93 - Fax: 94 454 50 63

Eskuak buztinez lohituta

t: Itxaso Marina

Bada hogeit hamar urte baino gehiago elkar-
tea sortu zela. Garai hartan ez zegoen
eskaintza handirik udal tailerrei dagokie-
nez, eta lagun asko zebiltzan zeramika
ikastaroan. Euren zaletasunari jarraipena
emateko modua elkartean ikusi zuten.
Urte hauetan jendetza handia pasatu da
taldetik, baina hasiera batean 25 bazkide
sortzaile izan baziren ere, gaur egun sei
lagunek baino ez dute osatzen elkartea.
Izan ere, urteak igaro ahala dibertsifika-
tzen joan da aurreko lerroetan aipatutako
eskaintza, eta, beharbada, herritarrek na-
hiago izan dituzte beste diziplina batzuk
aukeratu. Dena dela, elkarteko kideak
gustura daude buztin artean, euren alde
artistikoa askatzen, ikasten eta saiakun-
tzak egiten, eta eskuekin forma askoko
sorkuntzak moldatzen. Iñaki, esaterako,
elkarteko kide izateaz gainera, Udalaren
zeramika tailerreko irakaslea ere bada. Tai-
llerrean baditu hamalau ikasle, eta, lana
gainezka duenean, gainerako taldekideek
lagundu egiten diote, haiek ere harrema-
na estua dutelako tailerrarekin.

Elkartekideak martitzen eta eguene-
tan batzen dira, eta hilabetearen behin
hausnartzen dute nolako lanak egin di-
tuzten ordu arte, eta zein arlo jorratuko
dituzten hurrengo hilabeteetan. Hogeita
sei urtetik hirurogeita hamabost urte bi-
tartekoak dira; batzuek Arte Ederrak ikasi
dituzte, eta beste batzuek hainbat urteren
ostean jarraitzen dute buztinarekin goza-
tzen. "Hau oso mundu konplexua da, eta
guk oso zati txikia baino ez dugu lantzen.
Esperimentatzen eta prozesuak aztertzen
joaten gara: zein den emaitza, zein den
konbinaziorik onena... Liburuetan eta In-
terneten egiten ditugu kontsultak, eta
profesionalen ikastaroetan ere hartzen

ELTZEGINTZA ELKARTEA

Zeramikarako zaletasun handia duten lagunak batzen
ditu Eltzegintza Derioko elkar-teak. Iñaki Villares elkarte
horretako kidea da, eta elkar-tearen nondik norakoak
aztertu ditugu berarekin.



GALAISA
Estetika eta ileapaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51
Elegabeko ordutegia
Sabino Arana, 1-3, SONDICA

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala
Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia
94 453 25 15
94 453 39 31

Txorierri
Rocio Astorkia Bordegaray
Cel. nº 48000759
Kepa Herguedas Manso
Cel. nº 48000757
Maria Conde Bilbao
Cel. nº 48000983
Mixina 6, bajo - 48150 - Sondika (geltokiaren aurrean)
T.: 944 711 639 - Larrialdia: 670 985 885 - www.cdtxorierri.com

dugu parte". Izan ere, badira buztin eta teknika mota asko, eta elkartekide bakoitzak proposatzen du zein jorratu. "Teknikaz luze pentsatzen dugu, prozesua gutxi gorabehera kontrolpean dugun arte. Zaila da, ez delako "bi gehi bi"; nahiko arbitrarioa da". Zeramika sorta osoa lantzen dute: eltzegintzako ohiko buztina, buztin zuria, beltza..., gresak, esmalteak, engobeak, askotariko egosketa-teknikak, ikazteak... "Alderdi asko eduki behar dira kontuan pieza egiteko orduan: tenperatura, buztina eta esmalteak zelan jokatzaren diren... Ebaluazioak egin behar dira une bakoitzean ateratzen den emaitzari buruz".

Bizkotxatzea

Itzakik azaldu digu zein pieza eder bat egiteko prozesua. Pieza moldatu, eta sikatzaren utzi behar da. Labean sartu, eta egosi egiten da lehenik. Gozogintza izan ez arren, "bizkotxatzea" esaten zaio horri. "Ondoren, ura bota ahal zaio, margotu... Esmalte eman, eta labean sartu behar da berriro, hura urtu dadin". Pieza labetik ateratzen denean ezagutuko da nolako den emaitza. "Buztina 950-980 gradutan egosten dugu labean. Gori-gorian jartzen da eta esmaltearekin urtu egiten da, berniza izango balitz bezala. Piezari ematen zaion esmaltea zuria edo grisa da hasiera batean, eta egosi ostean ikusiko dugu nolako kolorea duen. Hori dela eta, inportantea da aztertzea zein esmalte mota moldatzen diren ondo elkarrekin, zeintzuek aldaratzen duten elkar...".

Haren iritziz, ez da zaletasun garestia. Buztina obretan eta hartzen dute batzuetan, baina normalean dendetan erosten dute, nahiko merkea baita. Esmalteak ere erosi ahal dira dendetan, baina norberak egiteko aukera ere badago. "Ia taula periodikoko elementu guztiak erabili ahal dira. Saiatzen joan behar izaten da, elementu bakoitzak formula barruan zein funtzio duen jakiteko, zeintzuek ematen duten opakutasun handiena, zeintzuek diren



*"Hau ez da "bi gehi bi",
eta alderdi asko eduki
behar dira kontuan:
tenperatura, buztina
eta esmalte mota..."*

aproposak tindatzeko...". Gainerako erremintak ere oso arruntak dira: eztenak, egur- eta belaki-zatiak, artaziak, aitzoak, pita, konpasak, irabiagailuak... "Garestiak tornua eta labe elektrikoa dira; nolanahi ere, gas labea ekonomikoagoa da, eta erraza da hura egiten. Guk gas labea erabiltzen dugu batzuetan, aproposagoa delako emaitza zehatz batzuk lortzeko". Oso zaletasun zaila ez dela esan digu. "Buztina oratu ez ezik, ezagutu ere egin behar da. Jakin behar da zein den egiturarik egokiena, helburuaren arabera lanari ekiteko. Buztina ondo badago eta zu ere bai,

orduan lortuko da akordioaren batera heletzea eta gauzatxoak egiten hastea". Eta lasaigarria ere bada. "Baina sutan jarri ahal zaitu, pieza okertzen hasten bada eta zutitzen lortzen ez baduzu. Niri hau gustatzen zait gehien: buztina urarekin eta suarekin nahastea eta gauza bikainak egitea".

Loreontziak, hautsontziak eta ezin konta ahala elementu apaingarri ateratzen dira astero Eltzegintza elkartearen labetik. Halakoak senide eta lagunen artean banatzen dituzte. Era berean, herrian antolatzen diren ekimenetan hartzen dute parte. "Data edo ekitaldi esanguratsuak aprobetxatzen ditugu tornu erakustaldiak egiteko, egosketa erakustaldiak... Lanak ere jartzen ditugu ikusgai. Azken batean, elkartearen lana jendeari hurbiltzea da helburua. Bizitzako edozein arlotan bezala, praktika eta pazientzia dira eltzegintza-aren gakoak. Edozeinek egiteko modukoa da, eta guztiak daude gonbidatuta gurekin buztinaz gozatzerara".

eltzegintza@gmail.com
ceramicaeltzegintza.blogspot.com

TXORIERRI MARMOLDEGIA
Sukalde eta bainugeleako harriak
Faxadak • Atariak • Hilerriak
Torrelarragoi ind., 7 B P. - 2. nabea
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 41-2

GORBEIA MERTZERIA
Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

Patxi KOOP.
BANATZAILA OFIZIALA
Mahon
www.PATXI.KOOP
Sakeleko telefonoa: 667 67 73 00
NEINVER pol. - Etxezarre kalea, 4
48170 ZAMUDIO - Bizkaia
✆ faxa: 94 452 25 67
patxikoop@patxi.coop

Sarria-Etxebarri edo Pikene



1975. urteko argazki honetan ikusi geinke Pikene izeneko etxearen aurrekaldea. Ezkerraldean, ugazabak berak XIX. gizaldean eregi ei eban beste etxe bat dago. Bestetik, esku-maldean teilape bat dago, 36ko gudan bolborategitzat erabili zana. Goiko irudi txikian gailurrari eusten deitsan haga azaltzen da, eta vertan hauxe irakurri geinke: esta casa yzo A.G. 1605.

t/a: Sabin Arana

Aspalditik gabilz herrikideei antxinako eraikuntzak ezagutzera emon nahian. Kasu honetan badakigu Larrabetzuko etxea zehatz-mehatz noiz eregi zan, gailurrari eusten deitsan hagan eregite-urtea azaltzen da-eta: 1605 edo 1615.

Sarria leinu-etxe lurretan egin zan. Beraz, bere hasierako izena eta kokapena kontuan hartuta, esan geinke Sarriatar sendikoren batek altzau ebala, ugazabek abizen hainbat aldiz aldatu baebe be. Aitatu beharra dago Sarriatarren lur-eremua Larrabetzuko beste leinu-etxe bik –ospetsueneritakoak biak– inguratzen ebela. Alde batetik, Zugazti leinuaren adar printzipaleko lurak egozan, azkenaldian Malpika abizenaren ondorengo bezala ezagutu dana; eta bestetik, Zugazti leinuaren bigarren adarrekoaren lurak, eskribauen leinukoak, hau



Argazki zaharrago honetan, 36ko gudakoa, teilapea gotorleku bihurtua ikusi geinke, metrailadore-habia eta guzti. Etxe nagusia, barriz, ospitaleztat erabili ei zan. Eraikin moltsua ia 300 metro zituan lubakiaren zatia izan zan gudan.

**Carnicería
Charcuteria
IMAZ**

MUNGIALDE ETORBIDEA,2
TEL.FNOA: 94 454 10 75

DERIO

Eskerrik asko
etortzeagaitik

Leire Begoña
ILEAPAINDEGIA

Unibax ileapaindegia
Estetika
Ordulegi jarraitua
Laser-depilazioa

Mungialde etorbidea, 20 DERIO
T: 94 454 26 32

ALI

EGUNEKO
MENUAK

ESPEZIALITATEA,
TORTILLAK

Lehendakari Leizaola Plaza, 6
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 04 68

da, Urtea-Sagasti bezala edo Inone izena-gaz ezagutzen dan baserria.

Sarria-Etxebarri edo Pikene etxeak aldaketa nabarmenak euki ditu. Adibidez, aurrekaldeko sarrera-atea ez dago erdialdean, eta etxea altzau zan garaian ez zan ohikoa halakorik egitea. Beheko solairuan kortea edo ukuilua egoanez, pentsau geinke atea egoera honetara moldatu ebela eta horregaitik aldatu ebela lekuz. Era berean, leiho bat falta dau lehenengo solairuan eta, daki-gunez, garai haretan egindako eraikinetan oreka mantentzea ezinbestekotzat jotzen zan. Edozelan be, ugazabek orekari erreparau barik egin ohi zituen aldaketak eraikinetan, euren beharriaz erantzuteko; gaur egun egiten dan moduan.

Beheko solairua ganadurako egoan egokituta; eta lehenengo solairua, familiarrentzat. Bigarren solairuan ganbara edo uzta-biltokia egoan. Gure inguruan ez dago hau bezalako etxe askorik, ezta hain altuak diranik be. Normalean etxe bajuagoak altzaten ziran, beheko solairuan sukaldea eta gela bat edo bi ebezanak. Ondorioz, pentsau geinke hau familiako pertsonaia printzipalaren etxea izan zala.

Ugazabak bitan banatu eban etxea XVIII. mendean, errentan jarteko asmoa ebalako. Halanda be, etxea abandonauta itxi eben urte batzuetan zehar, eta Jose Manuel Aretxaga kapitainak, Mexikon bizi zanak, enkantean jarri eban 1815. urtean. Etxea Asuatarrek erosi eben. Hareek beste etxe bat eregi eben XIX. mendearen erdialdean, Pikena txikia, eta etxe nagusia konpondu be egin eben.

*Gure inguruan ez dago
hau bezalako etxe
askorik, ezta hain
altuak diranik be*



SARRERAK AURRETIK EROSTEKO:
TXARTELDEGIAN
Edozein ekintza hasi baino ordu bat lehenago

BFA DFB

SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefonoa 94.453.64.13

ANTZERKIA

BROKERS
Producciones Yllana
Ikuskizun dibertigarria
Helduentzat
Azaroak 19, 20:00
Sarrera: 8 €

ARRATOITXO PINPİRINA
Glu Glu Producciones
Musikala, 3-9 urte
Azaroak 6, 17:00
-12 urte: 3 €
+ 12 urte: 5 €

CRUZADAS COTIDIANAS

Cristina Castillo
Umore-bakarriketak
Azaroak 26, 20:00
Doan: sarrerak, azaroaren 11tik aurrera, liburutegian edo txarteldegian (2 sarrera pertsona bakoitzeko)

URTE BERRI ON AMONA
2D
Azaroak 6, 19:30

LOS PITUFOS
3D - (AG)
Azaroak 11, 19:00
Azaroak 12, 18:00
Azaroak 13, 17:00

CRUZADAS Y SEÑORAS
2D
Azaroak 12, 20:30
Azaroak 13, 19:30

LA SAGA CREPUSCULO: AMANECER-PARTE 1
Estreinaldia 2D
Azaroak 18, 19:00
Azaroak 20, 17:00
Azaroak 20, 19:30
Azaroak 27, 19:30

KIKA SUPERBRUJA 2, EL VIAJE A MANDOLÁN
2D
Azaroak 27, 17:00

ZINEA

TE DOY MIS OJOS
ZINEFORUMA, solasaldia Garbiñe Etxebarriaren eskutik
Doan: sarrerak, Azaroaren 11tik aurrera Liburutegian edo txarteldegian (2 sarrera pertsona bakoitzeko)
Azaroak 25, 18:30

2D: 3 € 3D: 4 € Estreinaldia 2D: 4 € Estreinaldia 3D: 6 €

*oharra: produktorearen behar-izanen arabera programazioak aldaketak jasan ditzake

Baserri Antzokia,
kulturaz gozatzeko
eszenatoki naturala

t: Juan Luis Goikoetxea / i: Aritz Albaizar

Neure adiskide ingelesaren gutuna:

Hello Juan Luis,

This is Clive. Here is my little story.

Orain aste bi Bilboko taberna baten nengoen jesarrita, lagunei itxaroten. Une horretan, emakume gaztea sartu zen eta edaria eskatu zuen ingelesez: "Can I have a light coke to take away, please?" Ingelesez ederto egiten zuen, baina ikusten zen ez zela ingelesa.

Hiru zerbitzariak bira eman eta urrundu egin ziren. Berak berriro eskatu zion bati. Honek erantzun zion: "¡Yo no hablo English!"

Andreak hirugarrenez galdetu zuen, eta oraingoan frantsesez, frantsesa zen-eta. Alferrik!

Orduan neu hurbildu nintzen itzulpena egiteko asmoz eta itaundu nion emakumeari ingelesez: "Zer nahi duzu?" "A light coke to take away" -erantzun zidan. Orduan, espainolera itzuli nion zerbitzariari. Eta gazte hark erantzun zidan: "Aha- legin handiagoa egin behar du emakume horrek ze, Espainian gaude".

Nik erantzun nion: "Emakumea frantsesa da eta nazioarteko berbeta erabili du: ingelesa". Zerbitzariaren erantzuna: "Berdin da, Espainian gaude".

Nik, garagardo erdia mahaian utzi eta alde egin nuen, lagunei beste taberna baten itxaroten egoteko. Harrezkero, ez naiz itzuli edaritegi horretara.

Lastimagarria da istorio hori gertatzea eta gertatu ere Bilbon.

Zertarako da ingelesa?



Aiko hemen nire erantzuna adiskide ingelesari:

Dear Clive:

Sentitzen dut taberna horretan zure hizkuntza, ingelesa, ez errespetatzea. Orain, behar bada, hobeto ulertuko duzu euskaldunon egoera ze, askotan, guk eus-

karaz eskatu eta erantzuten digute: "¡En español!".

Hurrengoan ere Sancho Panzaren lurretan whisky güisqui izango da eta Shakespeare, Sa-kes-pe-a-re.

Berba-laguneko euskaltzaleentzat



Tlf: 944 478330
www.aisiahoteles.com



Tlf: 944 540574
www.pandpderio.com

GOLF GASTRONOMIKOA eskaintza berezia:
relax zikuitua, menu berezia eta green
fee bat, 9 zulotako golf-zelairako.

45€
pertsonako
beza baima



LEHIAKETA

Bi lagunentzako tratamendua:
TXOKOLATEZKO ESTALDURA

**Zer atonduko dute
Beralagunek?**

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehen:
-Telefonoz: 94 452 34 47
-e-mailez: aikortxori@aikor.com

Aurreko erantzuna:
Joserra García
Irabazlea:
Manu Pérez

Haragi kaneloiak, tomateakaz

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 16 kaneloi
- 300gr haragi xehatu
- Orioa
- 2 edalontzikada tomate
- 4 koilarakada gaztai birrindu (gainerretzekoa)

Prestatzeko era:

Jarri ur ugari kazola baten irakiten. Bota gatz apur bat eta orio zorrotadatu bat. Ura irakiten hasten danean, sartu pasta xafak, banan-banan. Egosi zorroan adierazotako jarraibideen arabera. Eragin noizean behin, xafak alkarri itsatsita gera ez daitezzen. Bigundutakoan, atera, utzi

hozten, xukatu eta jarri plater batean. Bitartean, berotu orioa zartaginean, eta sueztitu haragi xehatua; bota tomate saltsa (koilarakada batzuk).

Jarri labea berotuten eta kaneloiak jartzeko, prestau erretilu bat. Lehenik, bota tomate saltsa erretiluaren hondoan. Gero, hartu kaneloi bat eta bete haragi xehatuz. Kaneloiak bildu ahala, jarri erretiluan, bata bestearen ondoan.

Kaneloiak jarritakoan, estari tomate saltsaz. Bota gaztaia birrindua gainetik, eta sartu labean gainerretera.

Gomendioa: barazkiz osaturiko lehen plater batekin menu orekatsua lortuko dogu.



Etxeko sukaldaritza



Trufak

Maite Lekerika, sukaldaria

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 500 g postreak egiteko txokolatea
- 125 g gurin
- Koilarakada bat koñak
- 2 koilarakada hurretx (txikituak)
- Kakao-hautsa

Prestateko era:


Txokolatea eta gurina urtuko doguz mikrouhinean. Koñaka eta hurretxak gehitu eta ondo nahastuko dogu. Nahasketea izozkailura sartuko dogu eta han 20 minutuan eukiko dogu. Koilaratxo bi erabiliko doguz bolatxuak egiteko. Bolatxuok kakaotik pasauko doguz. Latexezko eskunarruak jantzi eta bolatxuak barriro pausako doguz kakaotik, hareei forma biribila emoteko. Trufak ordubete bi inguruan eukiko doguz hozkailuan, jateko ordura arte.

 **Ercoreca**
supermerkatuak
Elikaduran adituak

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK
Garbi-ikusiak, onakorrak
Auzokoen komunikatutak
Mantentze garbi-ikusiak
Buleguko eta lokalak
Ofizial amariako garbikerak
Ikusituenak
Zabere bilaketa

Besaide Plaza, 1 - B* Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93


lurrindegia **MAMEN** mertzeria
Goiko kalea, 6. Derio. 94 454 28 60 / 656 79 38 25

harategia - urdaitegia
MIGUEL
ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZTA

Mikel Deuna, 7 * DERIO 48160 * T: 454 52 94



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

- Arkadia iratzarria, Kai Meller.
- Zaharrak ez zuen hil nahi, Gaizka Zabarte.
- Atakak, Hasier Larretxea.
- Atzorako geratzen dena, Ana Urkiza.
- Tontorretik begira, Juan B. Gallastegi.

HAUR ETA GAZTEENTZAT

- Oilo gorria eta xitoak, Arantxa Ibarboure.
- Txomintxo eta Perutxo bakarrik gertatu dira etxean, Peru Magdalena Arriaga.
- Boga txakur hegalaria, Karlos Santisteban.
- Oilo-ipurdia jartzeko moduko ipuinak, Antton Dueso.
- Txori txorora, Juan Kruz Igerabide.

MUSIKA

- Harriak apurtu, Kerasy.
- Hiltzera goaz, Fiachras.
- Matxura, Matxura.

Sudokua

				2			
		4		8		9	
		9			1	2	7
7		2			4		9
8			1				3
3		5		9	8		2
9						8	1
		7					4
						9	

6	9	7	3	1	2	8	5	4
4	2	7	8	6	9	3	5	1
9	6	3	7	4	5	8	2	1
3	4	5	6	9	8	1	7	2
8	9	6	1	7	2	4	3	5
7	1	2	3	5	4	6	8	9
5	8	9	4	3	1	2	6	7
2	7	4	5	8	6	9	1	3
6	3	1	9	2	7	5	4	8

Jatetxea **SAN ISIDRO**

ETXKO OKELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERO GIDAGINTZA APARTA

ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukalderitza tradizionala

Telefonoa 94 434 07 06 Fax 94 434 14 18 Mungialde etorbidea, 25 48180 DERIO

POXPOLIN

OPARIAK ETA ARROPA

94 656 72 25

ARALAR, 4 DERIO

Nire Autocasion NA

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA



GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48180 DERIO-BIZKAIA

Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92

www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com



Azokak

Sondika

- > Eskulangintza, Nekazaritza eta Abeltzaintzaren XV. Azoka. Azaroaren 13an, 10:00etatik aurrera.

Erakusketak

Derio

- > Alberto Palomeraren argazkiak. Azaroaren 28ra arte, Kultur Birikan.
- > Himalaya-India, Jon Ander Rabadanen eskutik. Azaroaren 3tik 23ra arte, Kultur Birikan.

Ikastaroak

Derio

- > Defentsa ikastaroa, emakumeentzat. Azaroaren 5ean eta 12an, 16:30ean, Doyan gimnasioan. Izena ematea, Udaletxean.

Zamudio

- > Gore makillajea. Azaroaren 1ean, 17:00etatik 20:00etara, Gazte estazioan.

Lezama

- > Auto-estimua. Azaroaren 8tik aurrera, Uribarri Topalekuan. Izena ematea: azaroaren 4ra arte, liburutegian.
- > Imanak eta arkatzak eramateko gai-luak. Ludotekan.

Irteerak

Zamudio

- > Bizkaiko bira. Azaroaren 20an, Arroeta mendi taldeak antolatua.

Musika

Loiu

- > Klarinete eta organo kontzertua, Miriam Cepeda eta Luis A. Requejoren eskutik. Azaroaren 26an, 12:30ean, San Pedro elizan.

Derio

- > Ipar-Alde abesbatzaren emanaldia. Azaroaren 19an, 19:00etan, San Isidro elizan.

Txapelketak

Zamudio

- > Poker, 13 urtetik 20 urtera bitarteko-entzat. Azaroaren 18an, 20:00etan, Gazte estazioan. Izena ematea: azaroaren 18a baino lehen.
- > Areto-futbola. Azaroaren 26an, 17:00etan, Gazte estazioan.



Bestelakoak

Derio

- > Tokiko Agenda 21. Azaroaren 24an, 19:30ean, Kultur Birikan. DerioKOMunikazioak antolatua.

Zamudio

- > 2011-2012 ikasketetarako diru-laguntzak. Izena emateko epea: azarora arte.

Larrabetzu

- > Gabonetako programan izena emateko epea: azaroaren 14tik 18ra, Anguleri Kultur Etxean.

Tamara
Kopata-denda Osagarriak

Herriko plaza, 2
Derio
94 656 67 27

Doctor Luis Bilbao Libano, 6
Leioa
94 463 06 32

tamaraleio@yahoo.es

48160 LEZAMA Bizkaia

S.A.T. LEGU
SERVICIOS AL TRATAMIENTO DE RESIDUOS

Tf: 94 455 64 17

Bar TRIPPY
ZURE GIRORIK ONENA

Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun eta futbolinean jokatu, etorri zaitzez Trippya, Deriora.

Behoko Kalea 34a
DERIO

t i k
t a k

EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
opila
saldia

9€

Bestorrene 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

MODA INFANTIL
Tximeleta

Gernikako Arbola, 8
Telefona: 94 454 14 35
Faxa: 94 454 38 26

48160 DERIO
Bizkaia

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

Zenbaitzu Berruak
Logopedia
Podologia
Krimasajea

clínica dental ZAINDUZ
hortz klinika

Txanemendi etorbidea, 9 - Loria | Arteaga erakina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 667 75 54 46
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com



Biraka laguntzen
diogu munduari

ITP konpainia globala da, produktuaren bizitza-ziklo osoan zehar duen teknologia eta ingurumenarekiko begiruneagatik aerogintza eta industria motoreen merkatuan aitzindaria. ITPn kudeaketaren bikaintasunaren aldeko apostu sendoa egin dugu bai eta gure bezeroei begirako etengabeko lotura garatu ere, konpainiari eta interes-talde orori balioa emanez.



www.itp.es



talentuaren indarra



naturelle

tratamendu naturalak ♦ osasuna hobetzea



SIRODHARA.- Bekokian olio beroa isurtzen da, etengabe. Zentzumen-organoak erlaxatu eta indartzen ditu, nerbio-sistema zentral ere bai, eta hormonon oreka erregulatzen du. Lagungarria da kasu hauetan: sastadak buruan, sumindura, buruko mina, estresa, insomnia, estutasuna, zorabioak, aurpegiaren paralisia, hemiplegia, hipertentsioa eta epilepsia, banaka batzuk alpatzearen.



AYUR PINDA: BOLUS MASSAGE.- Bolak edo "pindak" olioaz igurtzi eta masajea ematen da gorputz osoan. Gaitz, gaixoaren gorputz eta urteko sasoiaren arabera, bolen barruan sendabelarrak egon daitezke, hauts sendagarriak eta limoia, edo arroz sendagarria. Besteak beste, gomendagarria da kasu hauetan: Vata desorekarekin lotura duten gaixotasunak, zerbikaletako mina, sorbaldako mina, odol-zirkulazio txarra, zainen konpresioa eta giharretako mina.



ABHYANGA.- Gorputzaren berezko oreka lehengoratzeko, masajea emango dugu buruan, aurpegian eta gorputzean. Ostein, STEAM BOX prozesuarekin jarraituko dugu, toxinak kanporatzeko. Hau eguneroko protokoloa da, gorputza gazteagotu eta suspertzen duena. Besteak beste, sistema garbitzen du, defentsa naturalak indartzen ditu, giharrak bizkortzen ditu, artikulazioen mugimendua hobetzen du, eta zirkulazioa eta sistema linfatikoa ere hobetzen ditu.



MARMA TERAPIA.- Marmak energia-puntuak dira. Terapia honen bidez, presioa egiten da gorputzeko puntuetan, eta gaixoa hobetu egiten da fisiko zein emozionalki. Abhyanga masajearekin batera egin daiteke, onura bikoitza lortuz. Gorputzak osatzeko berez duen indarra berpizten du, eta digestioak hobetzen ditu. Bizkortasuna areagotzen du eta hobeto egotea ekartzen du.



KOLONEKO HIDROTERAPIA.- Modurik eraginkorrena da hestea garbitzeko. Bereziki, toxemiaren sintomak dituzten pertsonen dago zuzenduta: idorreria, beheakoa, kolon narritakorra, loditasuna, zelulitisa, azaleko arazoak, buruko mina, zorabioak eta abar.

